

Gar garaia

Bat egitera gonbidatzen duten ospakizunez beteta heldu da udako solstizioa / 10-14

"Militantzia eskatzen du; goazen apustua egitera"

EKAIN ALEGRE GIL MUSIKARIA ETA BERTSOLARIA

Makrojalaiak, 'sold out'-aren kultura, gaztetxeak, talde berriak... Sakanako eta euskal kulturaren eszenaren inguruko hausnarketa egin du altsasuarrak

Erkuden Ruiz Barroso ALTSASU

Ganibet taldeko sortzailea eta kidea, Elektrokela Elektrotxarangako gitarrista eta bertsolaria da Ekain Alegre altsasuarrak. Ingeniaritza Elektronikoa gradua ikasi ondoren, soinu teknikari ikasketak amaitu berri ditu. Saltsa guztietan dagoela esan daiteke. GUAIXEko kolaboratzailea ere izan da, Bazterretik kultur iritzi zutabearen, eta bertan euskal kulturaren eszenari buruz hitz egin du: besteak beste, *Sold out*-aren kultura, kontzertu handiak eta horrek dakarrena.

Nola ikusten duzu euskal kultur eszena?

Pixka bat irregularra ikusten dut. Proposamen nahikoa bada, genero guztietarako proposamen nahi dago edo gero eta genero gehiago sortzen edo garatzen ari dira. Lehen hegemonikoagoa zen; rock. Baina orain musika berriarekin sortu diren genero gehiago daude. Hori eskaintza aldetik, baina gero egia da kontzertu aldetik ez dela horrela. Antolatzaileek askotan, leku batzuetan, gauza berdinak kontratatzen edo deitzen dituzte,

eta azkenean esposizio handien duten taldeak hiru edo lau dira. Behintzat euskal eszenako zirkuitu handiagotan; zirkuitu txikian egia da badagoela plaza guztientzat, baina ikusgarritasun gehien dutenak beti dira bost edo sei talde. Radio formula jarraitzen duten taldeak, eta azkenean bonbo gehien ematen zaiona dira. Beraz, produkzio edo eskaintza aldetik nahiko ondo dago, gero eta hobeto, baina gero etsigarria da kartelak ikustea.

Betikoak agertzen direlako?

Gero egia da entzulea ohitzen dela gauza bat entzutera eta askotan oso erraz erretzen da eta urte bat edo bi urte gauza bera biratzen egon ondoren bat-batean jendea berataz ahazten da eta beste bat hartzen du. Pixka bat kezkarria da nola gertatzen den hori talde batzuekin. Egia da zenbait ekoizle, irratik, telebistak edo hedabide sekulako boterea dutela aukeratzeko nor eta noiz altxatu. Gero barnetik ikusten duzu eta nola iritsi da hau hona? Eta ikusten duzu honen laguna dela edo beste horrekin dagoela... Botere hori ez dutenek,

errekurtso hori ez dutenek, nahiz eta besteek baino agian musika hobea egin edo behintzat lan handia egin eta eskaintza serioagoa izan, hor gelditzen dira. Euskal Herrian gertatzen da, ez dut izenik esango, baina telebistan beti berdina ateratzen direla; handiak. Jendeak uste du hor dagoela lan asko egin duelako edo meritokrazia bat dagoelako dela. Hau eta bestea egin duenez, hemendik eta handik pasatu denez, hor dago. Baina badira taldeak daramatenak besteek baino urte gehiago beste zirkuitu batean eta jendeak ez ditu ezagutzen. Kontzertu bat ikusten duzu talde *underground* batean eta flipatzen duzu. Agian besteek baino potenteagoak edo erakargarriagoak dira. Baina ez dute interesatzen edo beste jarrera eta kanon batzuk aurrera eramaten dira, eta gero ikusten duzu horien atzean norbait edo interes multzo bat dagoela. Euskal Herrian eta edonon; eta ez bakarrik musikan, beste arlo batzuetan ere.

Komunikabide tradizionalak indarra izaten jarraitzen dute? Zer paper dute sare sozialek?

Nik uste dut baietz. Nire ustez sare sozialena beste eragin mota bat da. Duela gutxi ikusi nuen Youtuben bideo bat artista baten kontzertu batena zeinari biralizatu zitzaion abesti baten estribilloa, duela gutxi Sukenari gertatu zitzaiona, super birala egin zitzaiola zati bat; orduan, jende pila bat kontzertua grabatzen zegoen eta parte birala iritsi zenean jende guztiak zekien letra, hamabost segundoko zerbait zen, eta jende guztia kantatzen zegoen. Hurrengo lerroa iritsi zen, ez hurrengo estrofa, hurrengo lerroa, eta inork ez zuen abestu. Abeslaria guztiz harrituta gelditu zen. Jende guztiak zati hori daki bakarrik. Sare sozialen eragina desberdina da. Gaur egun modan dago laguntasunari edo parrandari eta horrelako gauzari estribillo bat eginda Instagramen aukera pila bat dituzula biralizatzeko. Beste biralitate mota bat da, ez da hain iraunkorra. Egia da Spotifyn bisitak ekar ditzakeela, baina ez dauka horrenbeste arrastorik. Izan daiteke abesti on bat eta jendeak entzungo du, baina agian ez da kontzertu batera joango. Baina telebistetan eta irratietan taldeei enfokatzen zaie, eta abestia gustatzen bazaie jarraipena egingo zaio eta hurrengo single-a jarriko dute ere. Uste dut oraindik indarra dutela, eta gero haiek ere sare sozialei garrantzia ematen diote eta betiko indarrari gehitzen zaio. Sare sozialetakoa espontaneoagoa da, erabili eta botatzekoa balira; bi aste barru beste bat egongo da.

Zenbait euskal sortzailek kontzertu handiak antolatzeko ahalmena erakutsi dute. Zeren seinale da? Horren inguruan duela gutxi irakurri nuen uste dut Odei Barrosoren artikulua bat esaten zuena horrek ez duela esan nahi

"ZERBAIT BADAGO; MAKROKONTZERTUEKIN JARRAITZEN BADUGU, OASIA LEHORTUKO DA"

ekosistema ongi doanik, eta guztiz egia da. Hiru talde dira: Gaitibu, ZETAK eta ETS. Nik uste dut hor sartzen dela marketina. Kontzertuak ETBn bota dituzte, sekulako promozioa egin dute, agian bi hilabete lehenagoko promozioa egin izan dute sarre-erosteko, nahiz eta batzuetan ez den beharrezkoa izan atera eta berehala saldu direlako; beste makinaria bat da. Guapo dago hori, hau da, ikusten euskal taldeek edo musikariek ez dutela zertan herriko jaietan edo X festibaletan, baizik eta produkzio horiek aurrera eramateko ahalmena dutela. Baina ez dakit non sartzen den musika eta non sartzen den showa edo produktua. Ikusi dugu saltzen dena ez dela musika; ZETAKek mitologiaren elkargune erraldoi bat saldu zuen, ETSek herriko jai erraldoi bat saldu zuen egun osoko egitarauarekin... Pozgarria da euskal kulturaren horrelakoak ikustea, baina gero beste aldean gaztetxeak, jaiak edo bestelakoetan egiten diren kontzertuak eta jendea kontraesankorra da. 60 edo 70 euro ordain ditzake sarre-erosteko aurretik ikusi duen kontzertu bat berriz ikusteko, baina gero jotzen du talde batek gutxi ezagutzen duzuna doan edo bost eurogatik eta jendea ez da kapaza hori ordaintzeko talde berriak ikusteko. Jendeari ahaztu egiten zaio non hasi diren besteak. Ez balira halako zirkuituengatik ez legoke BECerik. Gainera, nik uste modelo hori iraungitzear dagoela. Euskal Herrian zenbat gara? Hiru milioi? Euskal kultura kontsumitzen dugunak betiko frikiak gara, bota 500.000. Ezin duzu kobratu kontzertu bakoitzarengatik 50 euro eta urtean zehar hiru BEC egin hiru talde horiek ikusteko, eta gero urtean zehar musikaz ahaztu. Nire hausnarketa da.

Talde berriren batek saltoa egin beharko du?

Ez dakit. Irratietik eta produktorek agitzen dute. ETS duela bost urte txosnetan eta ska jotzen zuen talde bat zen. Estiloan buelta bat



**TALLERES
GOÑI
TAILERRAK**




- Ibilgailu guztien txapa konponketa eta margoketa
- Bankadako lanak
- Barruko eta kanpoko garbiketa



Akaborro II industrialdea • IRURTZUN • 680 859 938 • 948 500 166 • chapigo@gmail.com

eman zuen eta hortik aurrera oso arrakastatsuak izan dira. Ez dakit horrelakorik aterako den. Muguruza, Gatibu... Beste historia bat daukate. Gatibuk 25 urte daramatza jotzen eta Muguruzak 40 urte.

Nostalgia eragina.

Musika eta nostalgia formu-la hori erabiltzen da gaur egungo musikan ere. ETSek adibidez esan zuen ez dutela utzi behar baina bai bira amaiera zela, eta bira amaierako kontzertua eman eta iragarri dute Bartzelonan eta Madrilan sekulako kontzertuak emango dituzte. Bukle bat da. ZETAKek gauza bera: Nafarroa Arena bete, amaitzen da, eta bederatzi hilabete barru beste kontzertu bat emango duela Ilunben. Nostalgia eta FOMOA sartzen dira. ZETAKen kontzertua nahiko merkea izan zen, baina kontzertua amaitzen da, estasiarekin goraino zaude eta bat-batean iragarki bat urte bat barru Ilunben. Eta joan behar duzu; nostalgia, egon beharra... ETSekin berdin. Kontzertua amaitu eta QR bat banatu zuten eta gainera konkista hitza erabiltzen dute; Bartzelona eta Madrid konkistatu behar ditugu. Dugu; kolektiboa. Baina agian ez dugu Bartzelona eta Madrid konkistatu behar eta eman behar diogu bultzada bat bertako eszenarioari edo talde handi bezala erramintak jarri behar dituzu. Eta ez norberaren egoetatik Bartzelonara 15.000 pertsonako pabiloi bat betetze eta gero Madrilera beste 15.000. Bukle bat da. Hainbeste izan behar izatea geroz eta handiagoa geroz eta handiagoa... Ez dakit nora daraman horrek euskal kultura. Biren esku dago. Beste bat aipatzeagatik Bulego; duela gutxi esan zuen geldituko zirela eta Kursaalaren egingo dute agurra. Talde mainstream bat da, baina BEC betetzeko ahalmena ZETAKek eta ETSek dute. Izarok ere BEC bete zuen, baina agian berriz ez luke bertan egingo. Duplak Agurainen egingo du azkena.

Talde berriek jotzeko aukera dute? Zirkuiturik dago?

Badago, eta Ganibeten ikusten dugu dagoela, antolatze gogo dagoela eta kontzertuak entzuteko gogo dagoela. Antolatzailengandik iristen zaiguna ilusioa da. Aurrekoan Areatzan egon ginen eta jendeak kontzertuak antolatzeko ilusioa zeukan; bi talde berri ginen, Adur eta gu,



Ekain Alegre altsasuarra lortia kultur gunean.

**"SARE SOZIALENA
BESTE ERAGIN MOTA
BAT DA; ERABILI ETA
BOTATZEKO BALIRA
BEZALA"**

**"ERREFERENTERIK
GABE, INDIFERENTZIA,
ETA HORREKIN
KONTZERTUETARA EZ
JOATEA"**

eta jendea etorri zen. Aukera badago. Erraza da? Egoeraren arabera. Nik uste dut ezetz. Antolatze gogo behar da. Ikusten duzu toki batzuetan historikoki kontzertuak antolatzeko esparruak izan direnak, eta utzikeria edo ez dakit zein interes dauden eta ez direla egiten. Oso gertu bizi dugun gauza bat da, azkenean ikusten dituzu bi edo hiru izen kartelean eta batzuetan berdinak dira, eta ez direnak erakargarriak ere. Apustu falta bat izaten da. Beldurragatik izan daiteke, edo ez dakit zergatik, baina batzuetan jendeak ez dauka interesik kontzertuak ikusteko. Jendea bizi da beste gauza batzuetan. Militantzia pixka bat eskatzen du: goazen X musikariengan apustu egitera. Seguruenik ez da ongi aterako, agian ez da jenderik joango, baina ez bazaio plazarik eskaintzen, azkenean ez da aurrera aterako eta oasia izango da oasia. Orain badago zerbait, baina jarraitzen badugu makro-jaialdiak eta gauza handiak potentziatzen, azkenean besteak lehortzen joango dira. Ez badira 150 pertsona ikustera joaten eta ez badute pila bat kontsumitzen, ez dira antolatuko. Batzuetan zaila da irakurketa hori egitea; askotan dirua ateratzeko antolatzen dira, jendea erakartzeko. Baina arriskatzek merzei du.

Publikoaren aldetik talde berriak entzuteko jakinmina dago?

Bai. Lekuaren arabera. Egia da hori betiko topikoa dela; Sakanan batzuetan gertatzen dena da bizi garea iraganean anklatuta. Batzuetan desesperantea da gazteen talde bat sortu eta Eskorbuto eta La Polla jotzen dute. Ongi, guay; musika egitea oso ongi dago, eta ni berdin hasi nintzen, eta gustatzen zait musika hori. Baina badaude gauza gehiago. Batzuetan interes faltagatik baino da ez dakizula non bilatu. Gaur egun daukagu hainbeste musika eskura, ez dakigula non filtratu eta non topatuko dugu nahi duguna. Guk oso argi ikusi dugu Bizkaian eta Gipuzkoan: retro-alimentazioa. Batek talde bat deskubritzen du, esaten dio bere lagun taldeari eta justu asanbladan daude eta ekartzen dute. Orduan, jende gehiagok entzuten du. Zorte kontua da, eta arriskatu behar da. Agian zure talde gogokoena bost minutura jotzen dago, eta ez dakizu ez duzulako entzun. Orduan, nik uste bada goela gogo, baina batzuetan

konfort zonaldeetik atera behar da. Askotan gertatzen da inguruan askori gustatzen zaiela musika zaharra eta da nola... Musika berria atera da, eta talde hau gustatzen bazaizu beste hau gustatuko zaizu. Batzuetan altaboz falta da, eta beste beste batzuetan zorte falta. Spotifyn abesti batekin topatzearekin batzuetan nahikoa da.

Orduan, estilo aldaketarik ematen ari da?

Sakanan rock zaleak gara, eta hori oso barneratuta dago. Esan behar nuen ateratzen diren hamar taldeetatik bederatzi direla rock, baina ez; hamar taldeetatik hamar dira rock edo rock-punk-oi estiloaren inguruan daudenak. Nik uste gertatzen dela Sakanan kontzertu bat ikustera zoazela eta zure erreferentea oholtzaren gainean dagoena hori da; hamalau urteko mutik batek, normalean mutilak direlako, hori ikusiko du eta orduan esango du: hau egingo dut. Pixka bat bukle bat da. Gero horrek beste gauza bat dakar: jendeak ikusten du gaztetxean jotzen duten taldeak nolakoak diren, bakarrik ikusi behar da azken lau hilabeteetan egon diren festetan zein taldek jo duten eta estilo berdinekoak diren; pasada bat da. Orduan, estilo hori gustatzen ez zaion jendeak esango du: ze perezak musika; ze perezak gaztetxe batera joatea kontzertu batera, beti berdina delako. Musika gaztetxera esaten du jendeak. Hemen. Beste herri batera joaten zara, hemendik 50 kilometrotara, eta musika gaztetxera beste gauza bat da. Agian zurekin bat egiten duena. Orduan, ez zait gustatzen hemengoa, nahiz eta hemen egon daitezkeen lauzpabost talde niri gustatzen zaizkidan musika jotzen dutena. Baina nola ez ditudan ikusten ez dira existitzen. Buklea da. Erreferente edo aniztasun falta dagoenez, musikarekiko indiferentzia dakar, eta indiferentziak dakar kontzertuetara ez joatea. Orduan, ZETAK ikustera joaten zara, eta kupoa bete duzu. Uste dut badagoela txipa aldatu beharra. Ez da bakarrik antolatzaileak, batez ere helduek badute horrelako mesprezua musika berriaren inguruan. Nola ez dauden bi gitarra eta ez dit balio; ez da musika, ez dute serio hartzen. Gure gertatu izan zaigu, orain agian ez hainbeste baina hasieretan bai. Eta horren atzean lana dago, entseguak daude...

Baina ez dute serio ikusten. Gero ateratzen da talde bat hiru akorde jotzen dituenak, garraxi egiten duena, eta bi gitarra eta bost anpli dituenez serioak hartzen direnak. Jendeak esan dezake Sakanan ez dela musikarik egiten edo errespetatzen duela egiten dena, baina ez zaiola gustatzen. Guapo dago jendeak abestea eta musika egitea, baina guapoagoa musika babestea musikagatik, ez bakarrik lagunak direlako; kontzertura noa gustatzen zaidalako.

Oraindik estereotipoak daude?

Nik uste dut baietz jendea eta musika lotzen direlako. Orain agian ez dago hain estigmatizatu; agian ez da hain arraroa esatea reaggatoia gustatzen zaiuzula esatea, lehen bezainbeste behintzat. Baina oraindik horrelako zerbait badago. Gehienbat 40 edo 50 urte baino gehiagokoen gertatzen da. Hala ere gertatzen da reggatoia entzuteko guay, baina gero esaten duzu reaggatoia jotzen duzula eta ez zaituzte serio hartzen. Bad Gyal edo Nicky Jam zara edo nola egin behar duzu zuk reaggatoia? Baina bai uste dut gauza aldatu dela. Duela hiru edo lau urte klasean esan nuen C. Tanganaren diskoa gustatzen zitzaidala, sekulakoa delako, eta jendeak esaten zidan: nola gustatu behar zaizu hori? Eta gaur egun jendea galdetzen diozu eta diskotzar bat dela esaten du. Zer edo zer aldatzen ari da, baina oraindik ere nik uste dela zer ikusten duzun eta zer garen.

Genero aldagaia kontuan hartuz, berdintasuna dago?

Teknikarien aldetik sektorea oso maskulinizatuta dago; teknikaria naizen heinean, maskulinizatuta dago, eta klasean ikusten zenen ere. Aurrekoan Bergaran jo genuen eta teknikariak neskak ziren eta salbuespenezko zerbait da. Publiko aldetik kontzertuaren arabera da, eta giroa pila bat aldatzen da. Izugarria da. Oholtzaren gainetik Amaiurrek eta biok nabaritzen dugu pila bat. Gure kontzertuetan zortea dugu eta nahiko anitza da eta errespetuzko publikoa da. Jendea gozatzen egoten da. Gero etortzen zara X gaztetxeko punk bertsio taldea ikustera eta publikoa gutiz desberdina da: garagardoa botatzen, jendea bultzatzen... Errepikatzen den zerbait da. Orduan, normala da batzuei peza ematea ikustera joatea, ja-



Ekain Alegre.

rrera batzuk bultzatzen direlako. Musikarekin batera jarrera batzuk bultzatzen dira. Hor dago beste irakurketa bat; musikatik haratago festa modeloetan ere zer defendatu nahi den. Talde bat ekartzen duzunean ez zara bakarrik talde bat ekartzen ari, taldeak jotzen duen musika eta ekartzen duen giroa ere ekartzen duzu; oholtzaren gainean sortzen den irudia. Nik uste geroz eta gehiago zaindu behar den gauza bat dela, horrek ere ekarriko duelako etorkizuneko musika. Kontzertua bukatzen denean jarrera tokian geratzen da. Oso argi ikusten dugu; Igorren jo genuen eta publikoa gozatzen zegoen, beste jarrera bat ikusten zen.

Eta oholtzara emakume gehiago igotzen ari dira?

Nabaritzen da eta gero eta talde gehiago daudela bakarrik emakume daudenak. Guay dago. Geroz eta normalizatuagoa dago, eta jendea estigma kentzen ari da. Beti egongo da tontoren bat, beti dago bakarren bat komentarioak egiten dituztenak, baina gero eta parekidetasun gehiago dago eszenatokian. Hemen inguruan ez da halakorik. Hitz da triste. Talde berriak egotea eta jendeak musika jotzea ongi dago, musika da dagoen onena, baina pixka bat desesperantea da beti berdina izatea. Gu ez gara sal-

batzailea ez ezer, baina guk egiten dugu zerbait desberdina eta esaten genuen agian orain jendea animatzen zela hemen zerbait desberdina egitera. Urte pare bat pasa dira eta ez dugu ikusten gauditu denik. Duela urte pila bat nik bertsio talde bat neukan, eta hamar urte pasa dira eta taldeek jarraitzen dute gauza bera jotzen. Apostu bat egin behar da; goazen hartzera beste musika bat egiten duten taldeak. Horrela erreferenteak sortuko dira.

Euskaraz jakin bai baina hitz egiten ez dutenei euskal kulturak komunitate sentiarazi diezaietke?

Bai. Nik uste dut baietz, eta hori dela ZETAken eta ETSen kontzertuen arrakastaren oinarri nagusia. Jende pila batek ez du euskaraz hitz egiten, eta joan da Instagramera igotzeko edo zer polita momotxorroa pasarelan korrikan. Kontzertu horretara joatean zerbaiten parte sentitzen dira, eta ETSen edo ZETAken hitzetan ikusten da; zerbaiten parte gara. Horrek dakar zerbait oso arriskutsua

"TALDE BAT EKARTZEN DUZUNEAN EZ ZARA BAKARRIK MUSIKA JAKIN BAT EKARTZEN ARI"

dena, uste duzu kontzertu horretara joatearekin eta parte hartzearekin ari zarela musika salbatzen. Kupo a bete dut. Beste musika guztia berdin zaizu. Orduan, komunitatearen parte zara, baina komunitate horren parte zara egun batean. Gero euskara ahaztu egiten zaizu. Hitzaldi batera joan, bertsio saio batera, kontzertu batera... Bestela ari zara makinari bati dirua ematen, ez zara ezerren parte. Sentiarazten zaitu zerbaiten parte, euskalduna eta modernoa zarela, baina gero praktikan hiru talde euskaldunengatik galdetu eta betiko hiruak esango dute. Tranpa bat da. Norbanakoari balio dio horren parte sentiaraztea.

BERTSOLARITZA Nola ikusten duzu bertsolaritzaren egoera?

Bertsolaritzaren inguruan gertatzen da ia musikarekin bezala. Antolatzaileek nahi dute karteletan bertsolari ospetsuren bat ziurtatu eta bertsolari top-en bat ekartzen dute, eta tokiaren area-

"ORAIN AGIAN EZ DAGO HAIN ESTIGMATIZATUA, BAINA ORAINDIK ZERBAIT BADAGO"


bera bertako bertsolariengatik apustua egiten dut ere. Toki guztietan ez da hori gertatzen. Bertsolaritzan plaza batzuk nahiko itxiak dira, eta gazteentzako sariketak daude, baina hortik kanpo zaila da gauzak topatzea.

Baina etorkizunik badago.

Bai. Bertsolaritzan bai eman dela eraberritze bat azken urtetan. Hainbat mugimendu eta birplan-teamendu egon dira. Adibidez, bertso saio musikatuak eta horrelakoak sortu dira, eta guay dago bertsolaritzak berasmakizun hori izatea eta ikustea herri desberdinetara esportatzen ari dela. Altsasun adibidez horrelako saioak egon dira, eta harrera ona izan dute. Garapen bat izaten ari da, eta Sakanan ongi hartzen ari da. Duela gutxi Gaztetxeak Bertsotan bertso saioa egon zen Altsasun, gaztetxea bete zen; bertsolaritzak badauka Sakanan musikarekin gertatzen ez dena, eta da saio berriak sortzen ari direla, formatu berriak. Antolatzaileak sekulako lanketa egiten ari dira horren inguruan identifikatzen jendea zer gustatzen zaion. Bertsolaritza kanpotik nahiko estanko bezala ikusten da, bertsolaria kantatzen, baina kontrakoa gertatzen ari da. Berasmatzen ari da, eta nik uste beharrezkoa dela kulturaren esparru guztietan; zerbait estankatuta gelditzen bada, hiltzen joango da.

Bestelako arte eszenikorik (antzerkia, dantza...) kontsumitzen duzu?

Ez, denborarik ez dudalako. Zintzoa izanda gustatzen zait eta joan naizenetan asko gustatu izan zait eta flipatzen dut. Gustatuko litzaidake operara eta horrelakoetara joatea. Baina ez dit ematen. Ikasturtean zehar aste osoa ikasten eta asteburua iritsi eta bi entsegu, bi kontzertu... Ez dago denbora fisikorik. Ikusten dudanagatik hemen antzerkia sustatzen da eta eskaintza nahiko dago, nahiz eta euskaraz, zoritxarrez, ez den hainbeste sustatzen. Eman dira kasuak aktoreengatik euskaraz zela pentsatzea, eta hona iritsi eta gaztelaniaz izatea. Herri honetan euskarazko ekitaldiak sustatzea beharrezkoa da. Mugimendua falta da. Jendea ez dela joaten esan ohi da, baina zergatik ez da jendea joaten? Dagoena ez zaielako gustatzen. Iortiak buelta gehiago eman behar dizkio horri. Ez da bakarrik dirua irabaztea, zerbait gehiago bada.



KOLABORAZIOA

JOSUNE AZPIROZ IMAZ

Enpatia

Ospitaleko ohetik idazten ditut hitz hauek. “Via” esku batean jarrita eta “todo incluido” pultsera bestean. Dena horretan, den-dena sartzen da. Jana, alojamendua, sufrimendua eta enpatia. Pentsatzeko denbora luzea izanda, azken horren inguruan hausnartzea erabaki dut.

Enpatia, besteen mina sentitzeko eta ulertzeko gaitasuna, gizakien oinarrizko ezaugarrienetako bat dela esan ohi da. Baina, benetan, norekiko sentitzen dugu enpatia? Guztiekiko ala hautatu batzuekiko bakarrik? Eta, batez ere, nondik dator sentimendu hori? Jaiotzetik dakarkigun zerbait al da, ala bizitzan zehar ikasten dugun mekanismo sozial bat?

Enpatia berezkoa da, baina selektiboa ere bai. Adibidez, “Ezaguna den biktimaren efektua”; kasu horretan gehiago enpatizatzen dugu, kasu indibidual eta ikusgarriekin. Edota

“Animalienganako enpatia”; zergatik hunkitzen gaitu gehiago zauritutako txakur baten irudiak, Siriako ume baten argazkiak baino? Zergatik ematen dugu dirua kaleko katuentzako janaria erosteko, baina ezezagun batek laguntza eskatzen digunean buelta ematen dugu?

Hurrengo faktoreek eragina dute: kultura, baliabideak eta distantzia geografiko eta emozionala. Globalizazioaren eraginak, enpatian, emozionalki hotzago edo kontzientzago bihurtzen gaitu? Gure erantzuna desberdina da, krisia lokala edo internazionala bada, edo ez?

Enpatia zaintza eta osasunaren arloan; Enpatiak zenbat iraun dezake? Compassion fatigue efektua gerta daiteke, beraz hauenganako enpatia ere kontuan hartu behar den zerbait da. Hala ere, nahiz eta enpatia berezkoa izan, hezi eta erakutsi daiteke baita ere.

GUTUNA

AGO Sindromeen Nafarroako Elkarte (ASAGON) gaixotasun arraro honen ikerketaren zati bat finantzatzen ari da

ANA SANZ OCHOA

AGO SINDROMEEN ELKARTEA

“Elkarteak 10.000 euro eman dizkio Estrasburgoko IGBMC ikerketa-zentroari”

AGO sindromeak, edo Argonauta sindromeak, 2020an identifikatutako gaixotasun arraro bat dira. Espainian 9 haurri eragiten die, eta munduan gutxi gorabehera 120 pertsona ingururi. Nafarroan, Uxue izeneko 5 urteko neskatxa bat da bakarra, Arronizen bizi dena.

Gaixotasun ezezagun honek adimen-desgaitasuna, ulermen

eta hizketa arazoak, epilepsia eta hipotonia eragiten ditu, besteak beste.

Sare sozialen bidez, Uxueren gurasoek beste hiru familiarekin jarri ziren harremanetan, zeinen seme-alabei ere gaixotasun bera diagnostikatu baitzieten.

Espainian ez zegoenez erregistro argirik, hasieran uste izan zuten Uxue kasu bakarra zela herrialdean.

2024an, Suitzan dagoen gaixotasun honen ikerketa eta dibulgaziorako elkarte baten berri izan ondoren, Uxueren gurasoek ASAGON izeneko elkarte sortzea erabaki zuten Nafarroan.

Urtebetez buru-belarri aritu ondoren, 10.000 euro bildu dituzte, eta Estrasburgoko (Frantzia) Genetika eta

Biologia Molekular eta Zelularreko Institutura (IGBMC) bidali dituzte. Ikerketa-proiektua Amélie Piton doktoreak gidatzen du, Estrasburgoko Unibertsitate Ospitaleko irakasleak. Piton nazioarteko ikerketa baten buru izan zen, eta AGO1 genearekin lotutako sindromea deskribatu zuen.

Ekarpen honi esker, ikerketa-taldeak hainbat esperimendu egingo ditu. Helburua da Argonauta sindromea eragiten duten aldaeren ondorioak garunaren garapenean aztertzea, garun-organoideak erabilita.

ASAGON elkartearen izenean, eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu kausa honekin bat egin duten pertsona guztiei.



OBJEKTIBOTIK



ARTXIBOA

Udaberriko loreak

Udaberriko azken egunak ditugu hauek. Urtaro haizetsu eta euritsua izan denaren sentipenarekin utzi digu.

Bazterrak berde asko daude. Abeltzainak belarrak egiten hasiak dira aspaldi. Loreak batean eta bestean jaso eta haiekin etxeak

edertzen dituztenak ere asko dira gure Sakana honetan. Baina lore batzuegatik eskaladan aritzeak, merezi ote?

HIZKETAN

Entzun GUAIXE IRRATIko elkarrizketa guztiak
guaixe.eu/irratia/hizketan



www.guaixe.eu

Erredakzio burua:
Alfredo Alvaro Igoa
erredakzioa@guaixe.eu

Erredakzioa:
Maider Betelu Ganboa
kiriolak@guaixe.eu
eta Erkuden Ruiz Barroso
kultura@guaixe.eu

Irratia:
Eneida Carreño Mundiñano
irratia@guaixe.eu
948 567 074

Publizitatea:
Eneida Carreño Mundiñano
publi@guaixe.eu
661 523 245
Itziar Gastearna Colmenero
publizitatea@guaixe.eu
619 821 436

ARGITARATZAILEA:
Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275

Koordinatzailea:
Goizeder Anton Iturralde
fundazioa@guaixe.eu

GK diseinu zerbitzua:
Ainhoa Etxeberria Pikabea
gk@gkomunikazioa.eu
Maider Perkaz Urdiaín
maider@gkomunikazioa.eu

Administrazioa:
Gema Lakuntza Lopez
admin@guaixe.eu

Zuzentzailea:
Patxi Flores Lazkoz

Kolaboratzailea:
Asun Berasategi Garziandia
Lege gordailua: NA-633/1995
Tirada: 3.200

LAGUNTZAILEAK



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



Urbasa-Andiako aparkaleku batean jarritako kartela.

Urbasa-Andia natur parkean txakurrak lotuta ibili behar dute

Nafarroako Gobernuak txakurrek larratzen dauden abelburuak ez erasotzeko edo ez molestatzeko hartu zuen erabakia. Urbasa-Andiako Larreen Batzordearen aspaldiko eskaera bat zen

SAKANA

Nafarroako Gobernuak, erresoluzio baten bidez, Urbasa-Andia natur parkean txakurrak aske ibiltzea debekatu zuen joan zen urteko agorrilean. Foru administrazioak azaldu zuenez, Urbasa-Andiak dituen 15.820 hektareatan 40.000 abelburu inguru egoten direla larratzen, Nafarroa guztitik etorritako 350 esplotazio baino gehiagoko azienda da mendian egoten dena. Txakurrek abelburuak ez molestatzeko hartu zuen erabakia.

Mendira azienda igotzen duten eta abeltzain profesionalak diren gehienak ordezkatzen ditu Urbasa-Andiako Larreen Batzordeak. Erakundeko ordezkariek azaldu dutenez, "urte dezente generaman aske ibiltzen ziren txakurren inguruko araudia aldatzeko eskaria egiten". Abeltzainen ordezkariek azaldu du-

tenez, "pandemiaz geroztik mendi ibilaldien, turismoaren, gorakada nabaritu da". Eta pertsona batzuk beraiekin batera txakurrak eramaten dituzte mendira. Beraz, mendia erabiltzen dutenen artean bi ikuspuntu daude: abeltzainena eta mendira aisialdian doazenena.

Txakurrak mendian lotuta eramatearen garrantzia azaldu dute batzordekideek: "ganadua eta artaldeak bazkatzen ari direnean, edo abaroan daudenean, lasai egon beharra dute. Kaletik mendira etorritako txakurrak, ganadua ikusita erabat aztoratzen dira eta

"AZIENDA BAZKATZEN ARI DENEAN EDO ABAROAN DAGOENEAN LASAI EGON BEHARRA DU"

kalean ez dituzten jarrerak izaten dituzte. Artaldeak nahasten dituzte. Abaroan zegoen tokietatik azienda mugiarazi dute". Halako kasuak izan dira, eta txakur horien jokabide horrek ondorioak ditu: "abereei estresa eragiten die, eta abeltzainari lan gehiago jartzen dio. Esaterako, artaldea ohikoa duen larrebideetik mugitu eta bilatu behar izana edo artaldea bi edo hiru zatitan banatzea. Okerrena izaten da txakurra ardi bat edo pare batekin grinatzen denean. Ardiak artaldetik urrundu eta, ondorioz, ardiak hankak hautsita edo abortatzen bukatzen dute". Denetarik txakurrak daude. "Etxean txakur indartsuagoak eta ez hain indartsuak ditugu guk ere". Ondorioz, denetarik erasoak izaten dira, hozkadak ere. Lepoan, atzeko aldean edo errapeetan. "Horrek ardiei min fisiko handia eragiten die".

Batzordetik azaldu dutenez, "azienda pertsonak bezalakoa da. Berdin da haur, heldu edo adindua izan. Beti esan izan da: 'bakean dagoenari bakean utzi'. Bada, aziendarekin berdin. Pertsonen behar berak ditu. Neguan, behean gaudenean, ekoizten, aziendak lasaitasuna eta bere martxa behar ditu. Udan, larratzen ari denean, gauza bera. Aske eta libre ikusten dira, baina hor eguneroko lana dago: biltzea, larre bidean ibiltzea... Bertan lanean ez gauden momentu horietan, ganadua hobekien dagoen modua da bakean eta lasai". Baina Larreen Batzordekoek ikusi zuten egoerak okerrera jo zuela.

Aldaketa egin arte legediak zioen jabeak txakurra kontrolatuta izan behar zuela. "Baina hortik dator egon daitekeen liskar handiena", azaldu dute batzordekoek. Denok esaten dugu kontrolatuta dauzkagula txakurrak, bai ganaduzaleak eta artzainak baita gainerako pertsonak ere. Baina txakurra kontrolatua izatearen muga non dago? Denok ez dute berdin jokutzen. Batzuen kulpak denok pagatu behar. Azkenean kontrolatzeko modu bakarra lotuta eramatea da".

Harremana

Txakurren erasoak gauez izan ezik edozein momentutan gerta daitezkeela azaldu dute batzordekideek. "Txakur jakin bat tokatzen denean gerta daiteke eraso". Halako kasuak gertatzen direnean txakur jabeen eta abeltzainen arteko harremanak nolakoak diren galdetuta, batzordetik azaldu dutenez, "ohartu behar gara mendia denona dela, liskarrak saihestu beharra dago. Abeltzainok argi geneukan. Horregatik erresoluzioa aterarazi genauen. Abeltzainak ez gara txakurren jabeekin aurrez-aurre jarri behar dugunak. Horrek ez du zentzurik ez mendian ezta kalean ere. Muga batzuk, lege batzuk daude. Egin eta aplikatu egin behar dira".

Hala ere, abeltzainek bizi izan dituzte halako egoerak txakur jabeekin. "Zure artaldean txakur

LARREEN BATZORDEKOEK IKUSI ZUTEN PANDEMIAREN ONDOREN EGOERAK OKERRERA JO ZUEN

bat ikusi eta jabeari zerbait esan behar izan diogu. Baina nor naiz ni pertsona horri ezer esateko. Horregatik erresoluzioa egon behar zuen. Beti saiatu gara liskarrik ez sortzen, elkarbizitza eta elkarlanaren alde egiten". Dagoeneko indarrean da erresoluzioa eta txakurrak lotuta joan behar dutela dio.

Txakurrak natur parkean aske ibiltzeko erresoluzioa joan zen urteko agorrilean sartu zen indarrean, "kanpainaren erdia zen eta gobernuak ez zuen kartelak jarri. Baina aurten, apirilaren 15erako, Nafarroako Gobernuak eta natur parkeko arduradunak sarreretan kartelak jarri dituzte. Txakur askeak ikusten dira, baina, momentuz, ez da eraso handirik edo arazorik izan".

Abeltzainek ere lanerako txakurrak erabiltzen dituzte. Haien txakurrak lotuta joan behar ote duten galdetuta, Urbasa-Andiako Larreen Batzordeko kideek esan dutenez, "argi daukagu gure txakurrek lan egin behar duten momentuan aske joan behar dutela. Gure autotik edo txabolatik ateratzen garetik gure artaldea edo azienda dagoen tokira joaten garen bitartean, egokiena litzateke guk eskatzen duguna guk geuk egitea: txakurra lotuta eramatea". Batzordekideek argitu dutenez, "gure artaldea edo azienda dagoen tokira joaterakoan beste artalde edo behi edo behor saldoak badaude, gu gara lehenak gure txakurrak lotzen ditugunak, edo kontrolatuta eramaten ditugunak". Jakitun dira egoera zehatz horrek liskarra eragin dezakeela: "gu lanera joan bitartean txakurra kontrolatuta daramagun bitartean kaletarrei lotuta eramateko eskatzen ari garela. Baina oso-oso zaila da artzain edo ganaduzale baten txakurra, horretan lanean dagoena, kontrola galtzea". Ez dute ukatzen gerta daitekeela, "baina gu geu gara lehenak mendira kontrola gal dezaketen txakurrak, edo txakur kumeak, eramaten ez ditugunak".

Urbasa-Andiako Larreen Batzordeko kideek, atzera ere, mezu errepikatu nahi izan dute: "abeltzainen eta txakurrekin joaten den jendearen arteko liskarra ez sortzen saiatu behar dugu. Baizik eta ahalik eta hobekien moldatzea, eta ahalik eta elkarbizitza hobereana izaten saiatu behar gara".

Alokairurako bi etxebizitza eraikitzen

Errozko Kontzejua bere jabetzakoa zen eraikin bat berritzen ari da eta han bi duplex eginen ditu, alokairura bideratuko dituenak. Foru administrazioaren dirulaguntzen bidez aurrekontuaren ia %74 ordainduko du

ERROTZ

Gazteek herrian bizitzeko aukera izan dezaten, Errozko Kontzejua bere jabetzako eraikin bat berritzea eta alokairurako bi etxebizitza egitea erabaki zuen. Ibeltzaz geroztik lanean ari dira kikusgileak Errozko Kontzejua San Migel kaleko lehenengo zenbakian duen eraikinean. NA-7010 errepidearen ertzean dago eraikin hori eta garai batean herriko elkar-tearen egoitza izan zen. Erabat utzita zegoen eraikinean bi etxebizitza eraikitzen ari da Servicios Inserlantxo SM enpresa. Lanak 2026ko maiatzeko despeditzea aurreikusten da. Obrak 353.462,12 euroko (BEZik gabe) aurrekontua du. Errozko Kontzejua horiek finantzatzeko Nafarroako Gobernuaren bi dirulaguntza eskuratu ditu. Alde batetik, Etxebizitza Zuzendaritza Nagusitik 200.265,60 euro. Eta, bestetik, Lurralde Kohesiorako Departamendutik 2023-2025 Toki Inbertsio Planetik 60.000 euro, haietatik 39.000 euro joan zen urtean jaso zituen eta aurten gainontzeko 21.000 euroak. Beraz, Errozko Kontzejua gobernuaren dirulaguntzen bidez lanen aurrekontuaren %73,63 ordainduko du. Kontzejua ekarpena 93.196,52 eurokoa izanen da.

Arakilgo Udalak ibarrerako Lehenasunezko Birgaitze Eremu izendapena lortu zuen 2022an. Nafarroako Gobernuaren izendapen horrek etxebizitzak zaharberitu behar dituzten arakildarrek eta kontzejuek foru administrazioetik dirulaguntza handiagoa lor dezakete. Arakilek jasotako izendapen hori baliatuta, Errozko Kontzejua Nafarroako Gobernuari eskatu zion Esku-hartze Publikoko Proiektu bat garatzea. Haren bidez, Errozko Kontzejua bi etxebizitzak egiteko dirulaguntza eskuratu nahi zuen. Legearen arabera aurrekontuaren %60ra arteko dirulaguntza jaso daiteke. Nafa-



Ezkerrean berritzen ari diren etxea. Furgoneta kalea estutzen zen tokian. ARTXIBOA

ALDAMENEAN ZEGOEN ETXE BAT BOTA DUTE HERRIGUNERAKO KALEA ZABALDU AHAL IZATEKO

roan tramitatu zen bigarren Esku-hartze Publikoko Proiektua izan zen Errozkoa. Beraz, aurrerari gutxiarekin, aurrera egin zuen Errozko Kontzejua baita dirulaguntza lortu ere.

Egitekoak

Etxeari perpendikularki itsasia dagoen San Migel kaleko 3. zenbakiko etxea bota egin zuten. Horrela, errepidetik herrigunera doan kalean zegoen estutze unea kendu zuten, 5 metroko zabaleran utzi kale guztia. Horrekin batera, zaharberitzen ari diren eraikinaren parean aparkatzeko bi plaza sortuko dituzte.

Etxeari dagokionez, beheko solairuan azpiegiturendako toki eta bi garaje egonen dira. Lehen solairuak eta ganbarak, berriz, duplex erako bi etxebizitza hartuko ditu. Horretarako etxearen

paretak 45 cm altxatu dituzte ganbaran. Eraikina erdibituta egonen da, etxe bana izanda iparraldera eta hegoaldera. Aurrenekoak 109,3 metro karratuko azalera erabilgarria izanen ditu eta atzenekoak, berriz, 112,1.

Gehiago

Aipatu eraikuntza lana ez da Errotzen egiten ari den bakarra. Ostagorri SM enpresa Errotzen hegoaldean bi etxebizitza familiabakar eraikitzen ari da. Hirigintza arauak hiru eraikuntza egiteko aukera ematen zuten, baina ibaia gertu dagoenez, eta uholde arriskua handia denez, hirigintza aprobetxamendu guztia ezin da gauzatu.

Erroztik Oskiarra daraman NA-7010 errepidearen azken etxearen ondoren, Lizarra kalera perpendikularki, 95 bat metroko luzera duen kale berri bat egin da. Etxebizitzak 3.397 m²-ko azalera duen unitate batean eraikitzen ari dira. Haietatik 2.358 m² etxebizitzendako izanen dira, 650 m² kalerako; kale horretan ibilgai-luendako gutxienez hiru aparkaleku eginen dira. Eta gainontzeko 389 m²-ak berdegune izanen dira.

Eskolan energia aurrezteko lanak egiten hasiko dira

Lanak eginda, ikastetxearen energia kalifikazioa gaur egungo D mailatik B izatera pasako da

UHARTE ARAKIL

Udalak ikastetxe publikoaren eraikineko inguratzaile termikoaren birgaitze energetikoa eta energia-eraginkortasuna hobetzeko lanak ikastetxearen akaberarekin batera hasiko dira, gaur, eta azaroaren 10erako despedituta egon beharko dute. Obra Abilita Construcción y Rehabilitación SM enpresak eskuratu du 529.367,65 euroren (BEZ barne) truke. Obra finantzatzeko udalak Dus dirulaguntza du.

Fatxadetan kanpoko isolamendu termikoa bermatzeko polies-

tireno hedatuzko 20 cm-ko geruza jarriko da. Teilatuak ere isolatuko ditu, batean zelulosa sartuz, bestean manta termikoa jarritz. Gainera, sotoko forjatuan isolamendua jarriko du. Leihoak aldatu eta pvc-zkoak jarriko dira. LED argiak jarriko dituzte. Aldi berean, kontrol eta erregulazio sistemak jarriko dira eskolan, energia egoki banatu eta bere erabilera optimizatzeko: gela guztietan termostatoak jarriko dira, sotoan izan ezik, eta berokuntza sistemaren sektorizazioa eginen da.



EKAINAK 23-27

- 10:00** Agurra, eguraldia, edukiak aurkeztu eta eguneko kanta
- 10:15** Prentsaren azalak
- 10:20** Albisteak eta kirolak
- 10:30** Hizketan
- 11:05** Solasaldia Karrape eta Aralar irratiekin
- 14:00** Errepikapena

Hizketan

- Astelehena 23**
Igor Artieda Triku trailez eta San Juan egitarauak
- Asteartea 24**
Elkarrizketa eta San Juan egitarauak
- Asteazkena 25**
Bertsoa.eus
- Osteguna 26**
Elkarrizketa
- Ostirala 27**
Agenda berezia





KOLABORAZIOA

ASUN BERASTEGI GARZIANDIA

Botanika, garai prehistorikoak eta pupurrubak

Botanika natur zientzietako adar bat da, landareak, algak eta onddoak ikertzen dituen (beste izaki bizidun mota batzuen artean). Bada, arkeobotanika, gizakiak iraganean landareekin izan duen erlazioa (eta honen bilakaera) ikertzen du.

Arkeobotanika hurrengo galdera motei erantzuten saiatzen da: nolako izan zen iraganeko paisaia? Nolako klima baldintzak ondoriozta daitezke landarearen ezaugarriak ikusita? Zein landare erabiltzen ziren elikagai modura? Zer beste erabilera izan zuten landareak garai batean?

Aztarna mota askotakoak dira ikerketa arkeobotanikoen helburu, haien artean polena, zuhaitz eta zuhaixken egurra (ikatza eran), haziak eta fruituak. Elementu hauek ikertuz, adituak gai dira landare espezie edo espezie multzo ezberdinak identifikatzeko.

Leku jakin batean agertzen den polena inguruko landarearen isla izan daitezke hein batean. Hori bai, kontuan

izan behar da landare bakoitzak sortzen duen polen kopurua oso desberdina dela eta aldakorrak direla, besteak beste, polen alearen kontserbazio ahalmena, aztarnategiaren ezaugarriak, eta abar. Adibidez, bai aztarnategietan bai zohikaztegietan egin diren polen ikerketen ondorioz jakin izan da pagoa orain dela 4000 urtetik aurrera joan zela ugarituz eta zabalduz gure inguruan, klimaren ezaugarriak egokiak izan zitzaizkiola eta gizakiaren eraginez paisaian egon ziren aldaketak ere segur aski lagundu egin ziotelako.

Aztarnategi prehistorikoetan aurkitutako egurrikatz zatiak aztertuz jakin ahal izan da espezie zehatz batzuk erabiltzen zirela bereziki erregai modura. Segur aski inguruan ugari izango ziren eta ahalmen kalorifiko ona dutenen artean haritza, artea, urkia, pinua, lizarra eta abar erabiltzen ziren erregai modura, baina, zalantzarik gabe, garrantzitsuenak haritzak (hainbat espezie) eta



Pupurruba edo mitxoleta, oso landare ederra izateaz gain, paisaiak jasan izan dituen aldaketen adierazle oso ona da. Garai batean oso ugaria izan bazen ere gaur egun gero eta eskasagoa dela ematen du. Egin dezagun gogoeta. ASUN BERASTEGI GARZIANDIA

arteak izanik. Bestetik, egur mota batzuk beste ezaugarri batzuegatik aukeratuko zituzten: ipuru egurra argia emateko ona delako, adibidez, edo, haltza, ke asko sortzen duelako eta haragia eta arraina ketzeko erabili zitekeelako.

Jakina denez, gizakiaren elikadura ehizan eta bilketan oinarritu izan zen milaka urteetan. Ehizari eman zaio askotan garrantzia literaturan eta zinean baina landareak ere oso garrantzitsuak ziren giza-taldean elikadura osatzeko (karbohidratoak, bitaminak, eta abar jasotzeko funtsezkoak ziren landareak). Biltzen ziren landareen artean bereziki preziatuak izango ziren epe luzera gorde zitezkeenak (fruituak, tuberkuluak...), ehiza eskasa zen garaietarako oso garrantzitsuak izango zirelako. Epe luzera gorde zitezkeen landareen ezagutza garatuz joan zen heinean arrakastatsuagoak izanen ziren. Gainera, biltegiatutako elikagai hauek giza-taldean arteko elkartruckerako erabili ahal izango ziren.

Aurrerago ehiza eta bilketan oinarritutako gizarteak erabat

aldatu da, landareak hazten ikasiko da eta abereak etxekotu egingen dira, Neolitikoari hasiera emanez. Aztarnategi prehistorikoetan agertzen diren haziak prozesu horren adierazle ezin hobekak dira.

Nekazaritzaren garapenak, ordura arte mendebaldeko Europan ezegunak ziren landare espezie domestikoen sarrera ekarri zuen. Landu ziren lehenengo landareak zerealak, batez ere garia (*Triticum* generoko hainbat espezie) eta garagarra (*Hordeum* generoa), izan ziren. Fenomeno hau orain dela 9500 urte inguru gertatu zen Ekialde Hurbilean eta handik mendebalderantz hedatuz joan zen, atzera bueltarik gabeko prozesu batean, gururaino iritsi arte, orain dela 5500-6000 urte inguru. Antzeko fenomenoak gertatu ziren Lurra-ren beste inguru batzuetan, arrozarekin Asian edo artoarekin Amerikan, esate baterako. Zerealen ondoan, lekadunak ere oso goiz agertzen dira domestikatuak: ilarra (*Pisum sativum*), dilista (*Lens culinaris*), txitxirioa (*Cicer arietinum*) edo babak (*Vicia faba*), beste batzuen artean.

Interesgarria da jakitea soroetan lantzen ziren landareekin batera beste landare multzo bat zabalduz joan zela ere. Horien artean deigarria da, adibidez, mitxoleta edo pupurruba. Horrela, aztarnategi prehistoriko batean pupurrubaren aztarnak aurkitzen direnean labore soroen presentziaren adierazle modura hartu izan ohi da.

Pupurruba edo mitxoleta, arkeobotanikarako espezie interesgarria da eta artista askoren inspirazio iturri. Hautzarora eramaten gaituen landaretzua, beharbada adinean aurrera joan garen heinean soro eta bide bazterretan gero eta eskasagoa delako. Gure gaur egungo gizarteak etorkizunerako utziko dituen aztarnetan pupurruba gero eta urriagoa dela deskubrituko ote dute?

Argazkiarentzat: Pupurruba edo mitxoleta, oso landare ederra izateaz gain, paisaiak jasan izan dituen aldaketen adierazle oso ona da. Garai batean oso ugaria izan bazen ere gaur egun gero eta eskasagoa dela ematen du. Egin dezagun gogoeta.

DUELA 25 URTE...



Ziordiko tunela, mustuta

Iparraldeko Autobiaren (A-1) azpian egindako tunela San Joan bezperan mustu zuten. Jose Ulibarrenak bere lan batekin edertu zuen tunela. Borroka askoren ondoren lortutako pasabidea zenez, besteak beste egindako protestaldi eta batzarrak gogoraraziz panelak jarri eta bideo emanaldia egin zuten. Ospakizuna herri afariarekin, sua piztearekin eta musikarekin osatu zen.



IRURTZUN Ergako Trinitatera igo ondoren gosaltzen. UTZITAKOIA



ETXARRI ARANATZ Bazkaldu ondorengo lehen dantzak.



LIZARRAGA Zortzikoa dantzatu zuten plazan. UTZITAKOIA



BAKAIKU-ITURMENDI Santa Marinako plaza bakaikuar eta iturmendarren topaleku izan zen. UTZITAKOIA



LIZARRAGA Herri afarian majo pasa zuten lizerratarrek. UTZITAKOIA

ZORROTZAILEA

Labana, aizkora, guraize, ardiak mozteko kutxilak eta bestelakoak zorrotzen ditut

**EKAINAK 23an
ETXARRI ARANAZKO
AZOKAN**

8:00etatik 11:00etara

652 920 840
www.zorrozketak.com

FESTAK

IZURDIAGA

EKAINAK 20 ostirala

18:00 Txupinazoa.
22:00 Galdaratxoak afaria.
00:00-03:00 Kontzertuak: Amaiur 22 eta Los Webotes.
03:00 Gaupasa, tabernan.

EKAINAK 21 larunbata

12:00 Bermuta.
12:30 Txapela jaurtiketa.
14:00 Norberak ekarritako bazkaria.
16:00 EZK Txarangak girotutako erronda.
OHARRA: Mozorroen gaia ltsasoa da.

EKAINAK 22 igandea

12:00-14:00 Puzgarriak eta barredora.
13:00 Bermuta.
14:00 Herri bazkaria.
16:00-18:00 Puzgarriak eta barredora.
17:00 Sakanako Harri Jasotzaile eskolaren erakustaldia.
19:00 *México en el Corazón* Mariachi Internacionalek emanaldia.
22:00 Hondarren afaria.

EKAINAK 23 astelehena

17:00 Auzolana.
21:00 Barbakoa afaria (barbakoa eramatea gomendatzen dute).
22:30 Suak piztea.

UHARTE ARAKIL

SAN JUANAK

EKAINAK 20 ostirala UAGAK ANTOLATUTA

13:00 Txupinazoa.
14:30 Bazkaria.
17:30 Pilota partida.
19:00 Ilargi txaranga.
21:00 Parrillada.
22:00 Iruinyard Sound System.

EKAINAK 21 larunbata

12:00 Txupinazoa Erraldoi eta buruhandien konpartsaren eskutik. Ondoren, erraldoien eta buruhandien kalejira eta 2024an jaiotako haurrei zapi banaketa.
13:00 Auzatea jubilatuen eskutik eta Kantuz-en emanaldia.
14:30 Herri parrillada.
18:00 Ilunberriko txaranga.
19:00 Buruhandiak.

20:00 Auzatea eta Zazpizar taldearekin dantzaldia.
21:00 Patata tortila txapelketa.
22:00 Zezensuzkoa.
00:30-03:30 DJ Javier.

EKAINAK 22 igandea

12:00 Erraldoiak eta buruhandiak.
13:00 Auzatea eta Galtxorratz taldearen dantza emanaldia.
14:30 Haurren bazkaria.
16:00 Aurpegi margoketa.
17:00 Odei Magoaren ikuskizuna.
18:00 Sardina jana Aralar Mendi Elkartearen eskutik.
19:00 Buruhandiak.
20:00 Auzatea eta Musutruk taldearekin dantzaldia.
22:00 Zezensuzkoa.

EKAINAK 23 astelehena

10:00 Zamartzera erromeria eta San Migeli harrera eta meza. Ondoren, auzatea.
12:00 Buruhandiak.
14:30 Zikiro bazkaria, UAGAK antolatuta.
16:00 Mus txapelketa.
18:00 Haurrendako puzgarriak.
19:00 Buruhandiak.
20:00 Auzatea eta 3TTU taldearen dantzaldia.
22:00 Suen piztea eta zanpantzarren irteera.
22:30 Txaranga, UAGAK antolatuta.
00:00-02:00 DJ Marzel.

ARBIZU

SAN JUANAK

EKAINAK 23 astelehena SAN JUAN BEZPERA

19:00 Brindisa plazan eta festen hasierako suziria.
19:30 San Juanera igoera Txorongo Txarangarekin.
20:00 Bezperak, ermitan.
20:30 Maria Lonbren Zaldiya kintoen dantzak.
21:30 Jaitsiera, txarangarekin.
23:30-03:45 Iratzar taldearekin erromeria.

EKAINAK 24 asteartea SAN JUAN EGUNA

11:00 Herriko puzgarriak.
12:00 Meza nagusia.
12:30 Herri gosaria, udalak eskainia.
13:00 Eingo taldea: Kantan eta dantzan.



ARBIZU San Juan bezperan, ekainaren 23an, hasiko dira Arbizuko festak. ARTXIBOA

18:00 Elai Alai dantza taldea.
19:00 Arbizuko erraldoiak Haize Berri dultzaineroekin eta buruhandiek.
20:00 Aatea.
20:30-22:00/00:00-03:00 Joselu Anaiakekin erromeria.

EKAINAK 25 asteazkena JUBILATUEN EGUNA

11:00 Herriko puzgarriak.
11:30 Jubilatuen meza.
12:30 Herri gosaria eta jubilatuen luntxa.
13:00 Destino Sonora.
17:00 Mus txapelketa.
18:00 TOR magoa.
19:00 Gimnasia erritmikoa eta buruhandiak.
20:00 Aatea.
20:00 Txalainak.
00:00-03:00 Goxo Txaranga.

EKAINAK 26 osteguna GAZTE EGUNA

11:00 Herriko puzgarriak.
12:30 Herri gosaria, Argi Bideak eskainia.
13:00 Poteo musikatua.
14:30 Bertso bazkaria: Eneko Lazkoz eta Julio Soto.
17:30 Tramakulu jolas kooperatiboak eta Multiabentura Naturkide-ren eskutik (10 urtetik aurrera).
18:00 Xaukena Elektrotxaranga.
19:00 Buruhandiak.
20:00 Aatea.
20:30 *Arbizu-Marda bi herri, askatasuna ipar. Palestina askatu* kontzentrazioa.

22:30 Kontzertuak: Mendeku Iruñerria, No limits oi!, Nafarroa 1512 eta DJ Bull.

EKAINAK 27 ostirala KINTOEN EGUNA

11:00 Herriko puzgarriak.
12:30 Herri gosaria, Alde Bidek eskainia.
13:00 Sakanako trikitalariak.
17:00 Haurren herri kirolak.
17:30 Herritarren arteko herri kirolak.
19:00 Buruhandiak.
20:00 Aatea.
20:00-22:00 DJ Boletus Rumberus.
22:00 Zezensuzkoa.
00:00 Kontzertuak: La Txama eta DJ Boletus Rumberus.

ARRUAZU

SAN PEDROAK

EKAINAK 27 ostirala
15:00 Norberak bere etxeko ataria garbitu.
18:00 Suziria, herriaren etxean.
18:30 Meza, San Pedro basilikan.
19:00 Merendua, San Pedron.
OHARRA: baserritarrez janzteko deia egin dute.
20:00 2024an jaiotakoei zapi banaketa.
21:00 Zezensuzkoa txikiendako.
21:30 Arbazuko zortzikoa, herriko plazan.
22:00 Afaria, Itur Gain elkartean.
00:30-04:30 Kaixo taldearekin dantzaldia eta jauziak.

OLATZAGUTIA

BATUEKO

EKAINAK 21 larunbata
10:30 Burundar Txistulariekin kalejira. Jarraian, Batuekora, San Migel plazatik.
11:00 Hamaitetakoa, Batuekon.
14:30 Kuadrillen bazkariak.
17:00 La Cigarra txarangarekin dantzaldia.

DORRAO

SAN JUANAK

EKAINAK 20 ostirala
19:00 Errosarioa, San Juan ermitan.
20:00 Auzatea.

EKAINAK 21 larunbata

09:00 Meza, ermitan.
10:00 Gosaria.
15:00 Bazkaria.

AIZKORBE

EKAINAK 23 astelehena

20:00 Iturri ondoko parkean elkartu, sua egin eta bertan herri afaria eginen dute. Ondoren, suan saltoka ariko dira.

ERROTZ

EKAINAK 23 astelehena

21:00 Plazan elkartu, sua piztu eta afaria prestatu; kontzejuak jatekoa jartzen du. Ondoren, suaren gainean salto.

IRURTZUN

SAN JUAN GAUA

EKAINAK 23 astelehena

21:30 Etxetik eramandako afaria, Foru plazan.

22:00 Herri dantzak.

22:30 Joaldunak, pertsonaia mitologikoak, sorginen dantza eta sua piztea.

24:00 Festa amaiera.

ETXARREN

EKAINAK 23 astelehena

20:00 Barbakoan txistorra, hirugiharra eta saltxitxak prestatuko dituzte, eta herritarrek eramandako hestekiak eta gazta ere egonen da dastatzeko, Aranburu frontoiaren parean.

EGIARRETA

EKAINAK 23 astelehena

21:00 Bi su piztuko dituzte: handiaren gainean saltoka ibiliko dira eta txikian afaria prestatuko dute, frontoiaren ondoan.

ZUHATZU

EKAINAK 23 astelehena

19:00 Otamena, txistorra, urdaia eta beste, akordeoilariak eta pandero jolearen musikak girotuta.
20:00 Sua piztea, garbitoki ondoan.

SATRUSTEGI

EKAINAK 23 astelehena

20:00AK aldera sua piztu eta barbakoan afaria prestatzen dute. Gauean, sua saltatuko dute.

HIRIBERRI ARAKIL

EKAINAK 23 astelehena

20:00 Txitera elkartean parrillada. Ondoren sua piztu eta haren gainean saltoka ariko dira.

IHABAR

EKAINAK 23 astelehena

ILUNTZEAN, sardinak egin, jendeak eramandakoa jan eta sagardoa edateko aukera izanen da, autobiaiko zubi ondoko pabiloian.

IRAÑETA

EKAINAK 23 astelehena

20:30 Frontoiaren eta Txapel Azpi elkartearen atzeko aldean elkartu eta otamena izanen da. Udalak urdaia eta ardoa emanen ditu. Ondoren, sua piztu eta saltoka ibiliko dira.

ARRUAZU

EKAINAK 23 astelehena

18:00 Etxez etxe egurrak bildu.
20:30 Ezkil errepika eta suak egin.
21:00 Herri parrillada.

LAKUNTZA

EKAINAK 23 astelehena

ILUNTZEAN, Suak piztea eta afariak.
22:00 Ezkil jotzea.
SUAK+GAUEZ ezkila errepika+auzatea kanpai dorrean

UNANU

EKAINAK 23 astelehena

ILUNTZEAN, suak piztu eskolak zireneko plazan eta kale batzuetan. Suaren gainean saltatu aurretik "Subiek ez piketzeko" esanen dute.

LIZARRAGABEN-GOA

EKAINAK 23 astelehena

22:00 Sua egin eta haren gainetik sato egingen dute, plazan.

ETXARRI ARANATZ

EKAINAK 23 astelehena

KARRIKA bakoitzak bere sua piztuko du eta haien inguruan elkartuko dira aldamenak.

BAKAIKU

EKAINAK 23 astelehena

20:00 Auzatea eta merenduak, trikitixak lagunduta.
22:00 Sua piztu.
EKAINAK 24 asteartea
GOIZ eta arratsaldea, puzgarriak.
EGUERDIAN, jubilatuen bazkaria.
17:30 Bolloka eta txokolatinak banatu.

ITURMENDI

EKAINAK 23 astelehena

18:30 Frontenis Txapelketa pilotalekuan
20:00 Auzatea eta San Juan bezperako sua piztea plazan
ONDOREN, afari herrikoia plazan.

URDIAN

EKAINAK 23 astelehena

19:30 Herrietxetik San Juan ermitara kalejira, txistulariekin,



UHARTE ARAKIL Erraldoi eta buruhandien konpartsa izanen da protagonista.

garai bateko jantziak daramaten neskekin eta dantzari txikiekin. Iristean, meza, ermitan.
ONDOREN, sua piztu, San Juan kantaita eta dantzari txikien emanaldia, ermitako plazan.
HERRIAN bueltan, auzoka afariak auzoka edo kuadrillaka.

ALTSASU

EKAINAK 23 astelehena

16:45 Txupinazoa trikitilariak lagunduta, San Juan plazan.
17:00 Haur jolasak Tramankulu taldearekin, San Juan plazan.
18:00 Txokolate jana Txutxin Ibañezek lagunduta.
19:30 Udalbatza Altsasuko Txistulariekin batera udaletxetik San Juan ermitara abiatuko da.
UDAKO solstizioa ospatzeko festa, Foru plazan.
AUZATEA Kukuerekek antolatuta.
20:30 Festaren hasiera: San Juango ermitan sua piztea.
AUZATEA.
HERRIKO suak pizteko txupin iragarlea.

KALEJIRA San Juan ermitatik Foru plazaraino Altsasuko Txistulariak lagunduta.
AUZATEA, ermitauaren etxean.
21:30-23:30 Eztanda Txarangak suak girotuko ditu.

EKAINAK 24 asteartea

20:00 Zortzikoa Altsasuko Txistulariekin eta auzatea, Foru plazan.
22:00 Haize Berriak bandarekin dantzaldia, Foru plazan.

OLATZAGUTIA

EKAINAK 23 astelehena

ILUNTZEAN, suak eta afariak kaleetan.

ZIORDIA

EKAINAK 23 astelehena

18:00 Batuekora joan eta han merendatu. 21:00 Afaria, Txoperan. 22:15 Zortzikoa, Txoperan 22:30 Sua piztea, Txoperan.



Garai bateko Arbizuko sanjuanak gogoan

1990an Arbizuko festetako egitarauak gordetzen hasi zen Miguel Angel Reparaz arbizuarra; are gehiago, 1985koa da gordeta duen lehenengoa. Urte hauetan festak nola aldatu diren ikusteko aukera ematen dizkiote programek

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

Nola aldatu dira Arbizuko festak azken urteetan? Galderari erantzuteko garai bateko egitarauak baino ez dira begiratu behar, eta hori da Migel Angel Reparaz Razkin arbizuarrak egiten duena. 1990an hasi zen festetako programak jasotzen, tartean 1985koa aurkitu zuen ere, eta 2020 eta 2021 urtetakoak pandemiagatik bertan behera gelditu ziren festetakoak eta 1999. urtekoa ez ezik, 30 programa baino gehiago bildu ditu. Ez da bilduma bakarra, Guaixe aldizkari zaharrak ere gordetzen ditu, baita hainbat txanponen bilduma dauka ere.

"Momentu batez programa ikusi nuen eta gordetzea pentsatu nuen. Gure atzetik datozenek ikus dezakete garai batean zer egiten zen eta bitxia iruditzen zait. Azkenean, aldaketak ematen dira, eta batzuetan garrantzitsuak dira". Arbizuko festetako egitaraua etxera iristean gordetzen saiatzen dela esan du Reparazek.

1985eko Arbizuko festetako egitaraua da zaharrena. "Aurretik ote ziren zalantza daukat; gutxi gora behera garai hartan hasiko zirela uste dut". 30 urte baino gehiago hauetan festetako eskuorrien diseinua asko aldatu da: "Garai hartan oso xumea zen, bi orri, orduz ordu zer zegoen,



Miguel Angel Reparaz Arbizuko festetako egitarauekin.

erdaraz ere jartzen zuten; gero aldatzen joaten da". 1990ko hamarkadan argazkiak eta iragarriak sartzen hasi ziren, "tabernak, dendak, baita argazki zaharrak ere. Horiek ere politikak dira ikusteko". Handiagoak, txikiagoak... "Hasieran sosoagoak ziren, San Juan ermitako argazkiarekin nahikoa zen, baina gero artistikoagoak izaten hasi ziren". 2000. urteko programa, esaterako, oktagonala da, eta 2007koa poltsiko formatutakoa.

Noizean behin festetako egitarau zaharretan agertzen diren argazkiak ikusten ditu Reparazek. Horrela, esaterako, garai bateko

ohiturak eta, hobe esanda, zenbait ohitura nondik datozen ikus daiteke: "Festetan arratsaldero merenduak egiten ditugu, herri guztia biltzen da plazan, eta hori izan zen lehen gizonak bokadillo batekin biltzen zirelako eta ardoa urtero bi familia arduratzen zelako banatzeaz. Baten bat hasi zen mahai bat jartzen eta lau lagunekin jaten, eta gero besteak hasi ziren". Hori izan zen merenduen hasiera, "aspaldi". Festetako ekitaldirik garrantzitsuenetarikoa dela esan du Reparazek. "Kanpoan bizi den jendea etortzen da eta denak biltzen gara". Bizitzan behin faltatu da Reparaz sanjuar-

netan; ezkondu zen urtean, ekainean ezkondu zirenez kanpora joan zirelako. Hasieran gizonak hasi ziren egiten, eta emakumeak haren kuadrilla gonbidatuak hasi ziren merenduetan parte hartzen. Hortik aurrera hasi ziren joaten, baina ez egunero.

Badago gauza bat aldatu ez dena Arbizuko festetan eta da ekainaren 23tik 29ra ospatzen direla, San Juan bezperan hasi eta San Pedro eguneraino. "Hemen ez da sekula aldatzen. Beste herri askotan aurreratu edo atzeratu egiten da asteburuarekin emateko; hemen ez". Zazpi eguneko festak dira, eta adineko jendearendako agian gehiegi izan daitekeen arren, "gazteek gozatzen dute, horrekin nahiko". Kinto gazte eta kintoendako egun garrantzitsuak dira, bezpera bereziki: "Mari Lonbren Zaldua zortzikoa dantzatzen dute, eta beraieko oso handia da".

Sanjuanetako egun politena eta bereziena bezpera dela esan du Reparazek. "Zalantzarik gabe". Arraltsaldean, 19:00ak aldera, txarangarekin ateratzen dira, udalbatza barne, eta ermitara joaten dira. Bertan, bezperak abesten dute, ardoa eta gazta ateratzen dituzte eta kuadrillek merendatzeko zerbait eramaten dute. Behin iluntzen denean txarangarekin "behera" egiten dute eta unerik garrantzitsuenetarikoa pizten da: Suak. "Ez da beste herri batzuetan bezala su handi bat egiten dela, Arbizun karrika guztietan goitik behera 50 metrotatik suak egiten dira eta sorbaldatik helduta etortzen gara saltoka". Politena dela dio arbizuarrek. "Nik hori defendatzen dut, gu zaharkitzen ari gara, eta ezin da galdu".

"Jendeak bere kontura parte hartzen zuen eta hori polita zen.

Dena programaturik dago. Bazen gauzak programatuta, baina programatik kanpo ere giro handia zegoen. Programako gauzak daude eta politikak eta ikusi beharrak dira, baina jendearen parte hartzea garrantzitsua da". Reparazendako adineko jendea etxetik ateratzea "garrantzitsua" da. Ni beti horrekin nago, ez dut esaten gauza handiak egitea; adineko jendea parte hartzea. Gazteek badute urte osoa ere". Batzuetan plazatik pasa eta musika entzuten jendea ez egotea "pena" ematen diola esan du.

Arbizuko festek izan dituzten aldaketen artean, garai batean jotak kantatzen zirela gogoan du Reparazek: "Herriko jendeak abesten zituen". Bestetik, plazan haurrendako txerrikumeak eta potokak eta animaliakegon ohiziren, "baina animaliek sufritzen zuten", eta kendu zituzten. Bigantxak ere egoten ziren, "Kale Nagusia ixten zen eta bigantxak goitik behera egoten ziren". Bestetik, Tuteratik orkestra etortzen zen eta "animazio handia" egoten zela esaten dute, "bezperatik etortzen ziren eta haien bila joaten ginen".

Arbizuko festetan nabarmentzen duen beste ekitaldi bat Sakana Kantuz da. Ekainaren 28an, larunbatean, ariko dira: "Lau herri hasieran hasi ginen Arbizu, Etxarri, Bakaiku eta Altsasu, eta hala segitzen dugu". Orain Uhartea Arakilen hasi dira zerbait egiten, eta Arbizura joaten dira entseatzera. "Udaletatik festetara joatea eskatzen digute".

"HASIERAN XUMEGOAK ZIREN, SAN JUAN ERMITAKO ARGAZKIAREKIN NAHIKOA ZEN"



Erraldoia izanen da Uharteko txupinazoa

Uharte Arakilgo erraldoi konpartsako kideek piztuko dute festen hasierako etxajua larunbatean. Konpartsak 25 urte bete ditu eta herriak bere ibilbidea aitortu eta esker ona nahi dio erakutsi

A.A.I. UHARTE ARAKIL

Herriko festak alaitzeaz aparte, Uharte Arakilgo herriaren izena hortik barna zabaltzeko ardura du erraldoi konpartsak. Mende laurdena bete du eta bere kideek egindako lanaren aitortza gisa, Uharte Arakilgo Udalak festei hasiera emanen dien etxajua erraldoi konpartsako kideei botatzea eskaini die. Figura erraldoiak presente direla, erraldoi txiki eta buruhandiez lagunduta, larunbat eguerdian piztuko dute etxajua. Adin guztietako ubertearrek parte hartu dute orain arte konpartsak. Eta denendako atek zabalik daudela gaztigatu dute.

Joan zen mendeko 60ko hamarkadan Uharte Arakilek bazuen erraldoi konpartsan. Etxarri Aranazko Udalari utzi zizkieten hango festan dantza zezaten. Orduan Etxarri Aranatzen festak lastailean ziren, egungo feriak. Erauntsi batek harrapatu zituen erraldoiak eta harri-kartoizko irudiak hondatuta gelditu ziren, konpondu ezinda.

Itzulera

Orduan txikiak ziren ubertearren oroimenean gordeak zeuden erraldoi haien oroimena. Haietako bat Mari Carmen Oteiza zen, eta 2000. urtean kultura eta



Konpartsaren 2011ko talde argazkia. ARTXIBOA

festen zinegotzia zena. Udalak pentsatu zuen erraldoi konpartsa berreskuratzea. Horretarako ubertearren garai bateko festetako argazkiak begiratu zituzten. Haietako batean errege-erreginak ageri ziren eta haien errepika egitea erabaki zuen udalak. Baina izen berriak eman zizkieten: Mikaela eta Donato, Aralar eta Beriain mendiei erreferentzia eginez. Bi buruhandi ere bazituzten hasiera hartan: sorgina eta deabrua, harri-kartoiz eginak. Lau hamarkadaren ondoren Uharte Arakilen konpartsa zuen.

Zazpi kiderekin hasi zen, haietako sei eramaileak.

Ubertearrek Irurtzungo konpartsakoak dituzte aita-ama pontekoak. Irurtzundarrekin ikasi baitzuten erraldoiak eraman eta dantzatzeko. Aldamean izan dituzten besteak Etxa-

**HERRIAN DAUDEN
ERRALDOI TXIKIAK
FESTETAN
KONPARTSAREKIN
BATERA DABILTZA**

rri Aranazko gaitariak dira, beti haien doinura dantzatu baitute. Uharte Arakilgo konpartsaren lehen irteeran erregeak lehen aldiz Juan Carlos eta Antonio Astizek dantzatu zituzten. Konpartsaren lehen agerraldia hartan Pedro Ansa eta Migel Zubietak omendu zituzten, lehen konpartsako erraldoiak dantzatzeko aritu zirelako. Lehenengo irteera hartan, gainera, erraldoiak Galtxorratz taldeko dantzariekin aritu ziren.

Konpartsak bi urte bete zituztean, 2002an, kide kopuruak gora egin zuen, bi erraldoi izatetik lau izatera pasa zen Felipe Gorriti Osanbela konpositorea eta Jauregiko Martija XVI. mendeko emaginaren erraldoiak. Haiekin batera erregina txikia, Txiki, iritsi zen. Guztiak beira-zuntzez eginak. Badira erraldoi txiki

gehiago herrian, eta festetan konpartsarekin batera ateratzen dira. Horrek, jakina, zaletasuna eta konpartsarako harrobia egiteko modua ematen du.

Gerora etorri ziren beste lau buruhandi ere: indiarra, drakula, beltzarana eta panplonika. Aurreneko biak harri-kartoizkoak, beira zuntzez eginak atzeneko biak. Gainera, beltzarana eta panplonika aurretik zeuden buruhandi batzuen errepikak dira.

Bere ibilbidean zehar Uharte Arakilgo konpartsak herriko mugak hainbatetan zeharkatu ditu. Arakilgo Egunean hainbatetan izan da, Itxasperrin. Etxarri Aranazko festak ere ezagutzen ditu konpartsa ubertearrak. Sakanatik kanpo ere izan dira, esaterako Funesen edo Uharte Iruñean.



**BIKAIN
GARAJEA**



Mekanika
Elektromekanika
Serie 100
pintura prototipoa
Autokarabana eta
furgoneta saila

Ongi pasa festetan!

948 460 037 Arbizu



Zuk jeri mahai eta guk jara!

Gure menuak eta hartak etxera
Asteburuetan gauetarake bokatak,
hanburgesak eta raziak

Gure eskaintza guztia:
www.janatxo.com

- Fernando Urkia kalea, 29 - Arbizu -

• 686 654 382 • 666 616 303 • 687 371 939 •

Izurdiagako inauteriak hemen dira

Izurdiagako festen egitarauaren barruan falta ezin dena etxez etxeko erronda da. Berezitasuna da mozorrotuta egiten dutela. Neguan ihoterik ospatzen ez dutenez, herriko inauteriak larunbatekoak izanen dira



Izurdiagarrik etxez etxeko errondan ibiltzeko mozorrotu egiten dira. UTZITAKOA

A.A.I. IZURDIAGA

Izurdiagako festak gaur hasi eta astelehenean despedituko dira. San Joani eskainitako festak dira. Normalean, ostiral arratsaldean hasten dira eta igandean despeditzen dituzte. Hiru egunetako ospakizunak dituzte, beraz, Izurdiagan. Beti garagartzaroren 24tik, San Joan egunetik, gertuen dagoen asteburuan ospatzen dituzten festak izurdiagarrek. Hala ere festen egitarauan beti laugarren egun bat gehitzen dute, auzolanerako deia da. "Festen ondoren guztia garbitzeko

deialdia da, den-dena behar bezala uzteko", azaldu du Toño Iraizoz Latasa izurdiagarrik. Hala ere, aurten astelehena San Joan bezpera denez, festak egun batez luzatu dituzte. "Parrillan jatekoak prestatu eta suak piztuko ditugu".

Festak prestatzen urte hasieran hasten dira Izurdiagan. Festa batzordean zortzi edo hamar herritar izaten direla azaldu du Iraizozek. "Batzuetan bileretara batzuk joan daitezke, besteetan besteak". Argitu duenez, "batez ere musikaz arduratu beharra

dago. Urtearen arabera, ostiralerako disko jartzaileak ekartzen dira. Larunbatean, beharbada, ere. Gainera, etxez etxeko errondarako txaranga behar da. Horiak lotzea da gehien kostatzen dena, eta kontratazio horiek egiteko beta gehiago behar da". Izurdiagarrik nabarmendu duenez, "zeregin horiekin zenbat eta lehenago hasi hobe, gero, bestela, bata edo bestea ezin opatu ibil gaitzeko". Izurdiagako festa batzordearen bileren berri emanez herriko Whatsapp taldearen bidez zabaltzen dute, eta bilere-

tara nahi duen edozein herritar joan daiteke bere ekarpena egitera.

Mozorrotuta

Larunbat arratsaldeko egitaraua herri guztian barnako etxez etxeko erronda da. "Aspaldiko festa batzorde baten bilera batean proposamena sortu zen: 'denok berdin joateko, zergatik ez goaz errondan guztiak mozorrotuta?' Hala izan zen". Iraizozek gaineratu duenez, "hasiera batean batzordekoak eta gazteak mozorrotzen ginen, eta ez genuen ezer esaten. Hasieran sorpresa zen. Azken urteetan, berriz, mozorrotzeko gaia zein den erabaki eta herritarrei jakinarazten zaie. Eta gai horren inguruan mozorrotzen gara guztiak".

Aurten festa batzordean mozorrotzeko sortu diren gaien artean itsasoa da aukeratu dutena. Duela hilabete inguru eman zieten gaiaren izurdiagarrei. "Batzuek beraien mozorroak egiten dituzte, beste batzuk erosi. Jendeak urte horretan duen denboraren arabera izaten da. Denetarik dago. Ez urtero, baina bakarren bat animatzen da gaiarekin lotutako guri txikiren bat egiten". Iraizozek bere mozorroari azken ukituak ematen harrapatu gunden. "Gutxi batzuk zertaz mozorrotuko diren badakit. Baina ez naiz galdetzen ibiltzekoa. Nik ez dut nire mozorroaren berri ematen. Egunean sorpresa hartzen dugu!"

Izurdiagarrik festetan mozorrotzen direla azaldu digu Iraizozek. "Herriko punta batetik bestera ibiltzen gara. Saprem enpresaren parean hasi eta futbol zelairaino, kilometro pasako ibilbidea da. Beti norabide berean egiten dugu erronda, akabera dantzaldia egiten den tokian

bukatzeke". Azaldu duenez, "garai batean etxe guztietara sartzen ziren errondan ibiltzen ziren herritarrek. Jateko eta edatekoak eskaintzen zituzten. Garai batean erronda luzatu egiten zitzaigun eta ez zigun azken etxeetara iristeko betarik ematen. Gaur egun hiruzpalau etxeetakoak elkartzen dira eta mahai batean errondan dabiltzanendako eskaintza jartzen dut".

Errondako ibilbidean etxeak duen kokapenak egiten duen eskaintzarekin lotura duela argitu du Iraizozek: "hasieran, edatekoarekin batera, postrea edo pastak ateratzen dituzte. Akaberan, afaltzeko ordua gertu dela, pintxoak eskaintzen dituzte". Errondan abiatu aurretik bazkaldu egin dute, baina, azkar, etxez etxeko mozorro erronda 16:00etan hasten baitute. "Erronda Izurdiagan betidaniko ohitura da. Aspaldi egunero egiten zen etxez etxeko erronda", jakinarazi du. Aldamenetako herrietakoak Izurdiagako festetara joaten dira, ez, ordea, mozorrotzera.



"BETIDANIKO OHITURA DA. ASPALDI EGUNERO EGITEN ZEN ETXEZ ETXEGO ERRONDA"

LONBREN DENDA ZURE EGUNEROKO

ONGI IBILI SAN JUANETANI

Tel.: 948 460 330
Kale Nagusia · ARBIZU

Aliprox

arbizuko kanpineko taberna

ONGI PASA JALETANI!

Erreserbak: 635 093 140

FLORÉS

ONGI PASA FESTETAN!

Utzubar industrialdea Arbizu
948 460 499
Nafarroako berezko txistorra

BUXEK

Ongi pasa festak!

@buxek_ileapaindegia
www.buxekileapaindegia.com

Fernando Urkia I,
Arbizu
948 461 698

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 20

ARBIZU Tailerra.

Asteroko menuaren antolakuntza eta planifikazioa ikastaroa, Elikadura eta ariketa fisikoa menopausian zikloaren barruan, Aitziber Aizpuru Eliku zentroko nutrizionistaren eskutik. Izen ematea: kirolak@sakana-mank.eus eta berdintasuna@sakana-mank.eus.

17:00etan, eskola zahar berrituan.

ARBIZU Festa.

Arbizuko herri eskolako festa: herri kirol jolasak, ludoteka mugikorra, puzgarriak, txapa tailerra, pultsera tailerra, ikasleen ikuskizunak, merendua eta musika.

17:00etatik 20:00etara, plazan (eguraldi txarrarekin frontoian).

ETXARRI ARANATZ Pilota.

Lau eta erdiko banakako San Fermin Torneoaren Baikoren kanporaketa: Bakaikoa – Agirre / Zubizarreta – Senar. Sarrerak: 20 euro.

19:00etan, Euskalerriari frontoian.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

XUT Etorbizuna dantza taldearen ikuskizuna: Euskarari lau gauza desberdin izendatzeko hitz bakar bat erabil daiteke eta, aldi berean, gauza bakar bat izendatu lau hitz desberdin erabiliz; XUT hitza horren adibide da: Zutik. Euskal dantzak bizirik diharduela aldarrikatu nahi dute. Sarrerak: 5 euro.

19:30ean, lortia kultur gunean.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Nafarroa 1512 taldearen XV urtez Bihotzez eta jarreraz diskoaren aurkezpena, Bulkada talde gonbidatuarekin.

22:00etan, gaztetxean.

LARUNBATA 21

IRURTZUN Topaketa.

16. Espaciobiker motorren topaketa: Nafarroa, Gipuzkoa, nomadak, Valladolid eta Bizkaiko elkarteak.

09:00 Izen emate irekiera.

10:30 Ibilbidea hamaiketakoarekin (6 euro).

14:30 Bazkaria, Matxain jatetxean (ehun pertsonendako; bazkaria: 20 euro; bazkaria eta hamaiketako 25 euro).

18:00 Sakanako Harri Jasotzaile eskolaren erakustaldia, zozketa eta motor jokoak. Ondoren, DJ, eskolako patioan.

LIZARRAGA Ikastaroa.

Zoru pelbikoa ikastaroa.

10:00etatik 12:00etara, eskolan.

ETXARRI ARANATZ**Txirrindularitza.**

Etxarri Aranazko emakumezkoen I. txirrindularitza lasterketa. Aralar Txirrindularitza eta Etxarri Aranazko Udalak antolatuta, hainbat babesleren laguntzarekin.

16:00 Kadeteak, 45 kilometro.

17:45 Junior, 68,5 kilometro.

ARBIZU Pilota eta omenaldia.

Joseba Ezkurdiari omenaldia; esku pilota jaialdia. Afizionatuak lau eta erdia: Igoa vs Olaetxea; omenaldia: Ezkurdia – Gaskue vs Zabala Bikuña.

18:00etan, pilotalekuan.

ALTSASU Dantza ikuskizuna.

Ttakun ttakun Irantzu Gonzalez Dantza Eskolako talde nagusien ikasturte amaierako ikuskizuna: txalapartaren historian oinarritu dira koreografiak sortzeko. Maddi eta Naiara Urkijo eta Argiñe Etxeberria txalapartari eta Etorbizuna dantza taldeko dantzari gonbidatuekin.

Sarrerak: 5 euro.

18:00etan eta 20:00etan, lortia kultur gunean.

IGANDEA 22

IRAÑETA Txapelketa.

Endurocross txapelketa.

10:00etatik aurrera, zirkuituan.

ETXARRI ARANATZ Kontzertua.

Jostailugilea Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiaren ipuin musikatua eta kontzertua.

18:30ean, Andra Mari ermitaren aurrean.

ASTELEHENA 23

ALTSASU Elkarretaratzea.

Sakanako Pentsiodunen Mugimenduaren Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.

12:00etan, udaletxearen aurrean.



INSTAGRAM

IRURTZUN Cocoli Aretaren Pirograbatuen erakusketa.

Ekainaren 16tik aurrera. Pikuxar tabernan.

OSTEGUNA 26

LAKUNTZA Dokumentalaren proiektzioa.

Ametsak burni bihurtuz Sakana Group-en ahotsak dokumentalaren mustitza, enpresaren 50. urteurrenaren harira. Publiko guztiarendako irekia.

19:00etan, kultur etxean.

IRURTZUN Kontzertua.

Jack eta DJ Kaylf reggae kontzertua.

20:00etan, Pikuxar plazan.

OSTIRALA 27

ALTSASU Batzarra.

Dantzaleku Sakana elkartearen Sakanako korrikalarien bilera irekia, korrikalari guztiak elkartzeko, taldekideak izan edo ez.

18:00etan, Gure Etxean.

IRURTZUN Kontzertua.

Haize Txikiak bandaren kontzertua.

19:30ean, Gernika plazan.

WEB DISEINUA GRAFIKOA ENPRESETARAKO EUSKARRIAK
LIBURU ALDIZKARI MAKETAZIOA KARTEL PAPER GINTZA APLIKAZIOAK
IRUDI KORPORATIBOAK PUBLIZITATEA KOMUNIKAZIOA

gik
 DISEINUA ETA
 KOMUNIKAZIOA

Etxarrik bide malkartsua du, baina ez ezinezkoa

FUTBOLA Etxarri Aranatz edo San Jorge, bietako bat igoko da preferente mailara, eta besteak erregionalean jarraituko du. Itzulera partida larunbatean hartuko du San Jorge zelaiak, eta Etxarrik inoiz baino gehiago behar du zaleen babesa

Maidet Betelu Ganboa ETXARRI ARANATZ Erregional mailakoigoera fasean bigarren kanporaketa jokatzeko ari da. Etxarri Aranatz arerio latza tokatu zaio, hain zuzen ere liga erregularrean bere aurkaririk sendoena izan zena: San Jorge. Liga Altsasuk irabazi zuen (96 puntu), eta San Jorgek eta Etxarri Aranatzek lehia gogorra izan zuten bigarren postua lortzeko borrokan. Azkenean, San Jorge bigarren izan zen (83 puntu), eta Etxarri Aranatz hirugarren (80 puntu)

Igoera faseko bigarren kanporaketan Etxarri Aranatzek eta San Jorgek preferenteko postuetako batengatik borrokatuko zutela jakiteak ikusmin handia piztu zuen. Izan ere, bi taldeak oso onak dira, eta norgehiagoka oso estua aurreikusten zen, hala izaten ari den moduan.

Joaneko kolpea

Joaneko partida San Donato zelaietan jokatu zuten bi taldeek



Igandean jende asko bildu zen San Donaton jokaturako joaneko partidari. ETXARRI K.E.

igandean. Etxean jokatu zuen Etxarri Aranatzek, eta zale asko bertaratu ziren taldea animatzera. Partida hasi eta berehala, 7. minutuan, San Jorge taldeko Julen Rodriguezek gola sartu zuen eta markagailuaren kontra

aritu behar izan zuen Etxarri Aranatzek. Bi taldeak nor baino nor borrokatu ziren, baina Etxarri Aranatzek buelta ematera aterako gara" azaldu du Ioseba Bakikoa entrenatzaileak. Gol bateko alde du San Jorgek, eta zelai faktorea alde, baina Etxarri ez du etsiko. Etxarriar ugari hurbilduko dira taldea animatzera, eta ea guztien artean ahal den.

bigarren gola sartu zuen, etxarriarrendako kolpe gogorra, eta partida maldan gora jarri zitzaion Etxarri Aranatz. Baina Ioseba Bakikoa zuzentzen duen taldeak ez zuen behera egin, eta atsedenaldira joateko zirela Pello Altzelaik 45. minutuan sartutako golarekin 1-2 hurbildu zuen Etxarri. Horrek airea eman zion Etxarri, eta sekulako ilusioa piztu zuen zaleen eta jokalarien artean.

Atsedenditik bueltan Etxarri Aranatz aldea murrizten saiatu zen, partida berdintzen, baina San Jorge defentsak ongi zaindu zuen atea eta markagailua ez zen gehiago mugitu. Joaneko partida San Jorge alde, 1-2, bukatu zen.

Sentsazioak berreskuratzera

Bi taldeek itzuliko partida bihar jokatu dute, larunbata, 18:30ean San Jorge zelaietan. Etxarri Aranatzek badaki erronka zaila duela aurretik, baina gorritxoak emaitzari buelta ematera aterako dira, asko baitago jokoan: preferentera igotzea. Horretarako, sentsazio positiboak berreskuratzeko ezinbestekoa da. "Kanporaketa zaildu zaigu, baina emaitzari buelta ematera aterako gara" azaldu du Ioseba Bakikoa entrenatzaileak. Gol bateko alde du San Jorgek, eta zelai faktorea alde, baina Etxarri ez du etsiko. Etxarriar ugari hurbilduko dira taldea animatzera, eta ea guztien artean ahal den.

LABURREAN

Etxarrik Lakuntzaren lekukoa hartu du



Aralar klubak 2022an antolatutako, azkeneko, Lakuntza Emakumeen Txirrindulari Lasterketa. Klubak lasterketa berreskuratu du, baina Etxarri Aranatzek jokatu du, larunbatean, 16:00etan. Kadeteek Arbizu, Lizarraga eta Etxarri arteko zirkuituan ariko dira (45 km), eta juniorrek Lizarragako katea dute aurretik (68,47).

Ezkurdia, omendua, eta Bakaikoa, jaioterrian



Profesional mailako bi jaialdi jokatu dira asteburu honetan Sakanan. Gaur, ostirala, Baiko adarreko Sanferminetako lau eta erdia hasiko da Etxarri Aranatz, 19:00etan. Joanes Bakikoa Agirre izango du aurkari, eta Zubizarretak Senar. Bihar, larunbata, Joseba Ezkurdiak merezitako omenaldia jasoko du Arbizun (ikus agenda).

Pilotari onenak, Arbizuko San Joanetan



San Fermin Torneoko Urrezko Liga azken txanpan sartu da. Ekainaren 24an lehen faseko lau bikoterik onenak Arbizun neur-tuko dituzte indarrak 18:00etatik aurrera hasiko den jaialdian. Lehenik eta behin Aldai-Bergarak Salsamendi-Mendizabal izango dituzte arerio, eta bigarrenik Etxegarai-Gamindek Zabaleta-Erasun.



IRURTZUN PILOTA KLUBA

Irurtzango txapelak, erabakita

PILOTA Afizionatuen pilota txapelketa garrantzitsuenetakoa da Irurtzangoa, eta, urtero bezala, 33. edizioako finalek ikusmin handia piztu zuten. Jaialdia hasteko, Gure Pilotako Beltzak eta Gaintzarainek 18-25 irabazi zieten Astitz eta Erauskin bere taldekideei. Segidan, bigarren mailako finala jokatu zen. Otxoa-Lizarragaren (Irurtzun) eta Olasagasti-

Villanuevaren (Behar Zana-Zugarralde) arteko finala oso paretsua izango zela espero zuen katedrak, baina ez zen horrela izan eta, azkenean, Olasagasti-Villanueva alde handiz gailendu ziren, 22-12. Lehen mailako finala, aldiz, oso borrokatua izan zen. Rekalde-Cuairanek (Txumuluxueta-Irurtzun) 18-22 irabazi zieten Azketa-Bergerari (Tartaloetxe-Irurtzun).



Amaia Razkin Medrano eta Olatz Azazeta Pelaez, Baigorriko Euskal Trail binakako proban. PIERRE EZCURRA

"Baigorrikoa ezuste bat izan zen, sorpresa polita"

AMAIA RAZKIN MEDRANO MENDI LASTERKARIA

MENDI LASTERKETAK Amaia Razkinek eta Olatz Azazetak 2x40 Euskal Traila irabazi dute. Binakako lasterketa da, Urepel eta Baigorri artekoa, bi egunetan maratoi bana

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL / ALTSASU

Maiatzaren 30ean eta 31n, Amaia Razkin Medranok eta Olatz Azazeta Pelaezek erronka berezia osatu zuten: Baigorriko Euskal Traila. Euskal Raidek antolatutako proba berezia da, binaka jokatzeko dena, egun bakoitzean 40 km-ko etapa banakoa. Ia bi maratoi jarraian dira, 80 km eta 4000 m + desnibela guztira. Lasterketa irabazi zuten, eta garrantzitsuena, ongi pasa eta leku berriak ezagutu zituzten.

Nola sortu zen Baigorriko binakako lasterketan parte hartzeko ideia?

Urrian Ultra Pirineu (100,2 km, 6550 m+) ultran parte hartzera joan nintzen Kataluniara. Olatzek ingurune hori oso ongi ezagutzen duenez, lagundu ninduen. Han

"BAKARRIK ENTRENATZERA OHITUTA GAUDENEZ, ZEIN ERRITMO HARTU, ZALANTZA GENUEN"

geundela, Baigorriko lasterketa aipatu nion, eta Iparraldeko ingurune hura ezagutzen ez genuenez, joatea proposatu nion. Ezezkoa jasoko nuela uste nuen, baina han agertu ginen biak. **Baigorriko Euskal Traila, binaka jokatzeko aparte, bi eguneko lasterketa da, egun bakoitzean 40 km-koa. Ia bi maratoi jarraian. Zuk denbora gehiago daramazu distantzia luzeetan, Olatz iaz hasi zen.** Ostiralekoa Urepeletik Baigorri bitarteko 40 km-ko lasterketa zen (2000 m+), eta larunbatean

Urepeletik hasi eta Aditik pasata, beste 40 km Baigorriraino. Olatzek egiten dituen kirol guztiak oso ongi egiten ditu, beti esaten diot hori, eta ez genuen inolako arazorik izan. Azkenaldian Olatzek proba luzeak egin izan ditu, eta oso ongi.

Ia bi maratoi jarraian. Nola prestatzen da halako proba bat?

Bakarrik entrenatzera ohituta nago. Hasieran pixka bat urduri geunden, zein erritmo hartu. Ez genuen lehenengo egunean azkarregi joan nahi, hurrengo egunean jota ez egoteko. Zalantza horiek genituen. Azkenean, erritmo nahiko konstantean ibili ginen, eta ongi moldatu ginen.

Entrenamendu espezifikoren bat egin zenuten bien martxa edo hanka kolpea orekatzeko?

Proba baino astebete lehenago Uhartea Arakilen geratu ginen. Beriainera igo ginen, Irañetatik jaitsi, eta Irañetatik San Migel igo eta Uhartera jaitsi ginen. Hori izan zen biek batera egin genuen entrenamendu bakarra. Aspalditik ezagutzen dugu elkar; zati batzuetan bata aurrean jartzen zen, eta besteetan bestea, txandakatuz. Batera ibiltzera ohitu behar izan dugu, jaitsieratan bien artean zein distantzia mantendu erabaki, erritmo ona eraman baina ez gehiegizkoa... Erreleboetako lasterketak ikustea ohituta nago, Leitzakoa adibidez, baina Binakako lasterketak ez dira oso ohikoak.

Beraz, zailena binaka joatearena izan zen, distantzia bera baino?

Bai, ez gaudelako ohituta. Guk erritmoan ez genuen arazorik izan, baina beste bikote batzuk ikusi genituen, batak besteari ezin jarraitu, esaterako. Gu lasai joan ginen, inolako denbora helbururik gabe, eta ez genuen momentu txarrik pasa. Horrek guztiak lagundu zigun baita ere. **Urepel eta Baigorri artean zein altueratoko mendietan ibili zineten?**

Ez ziren oso mendi garaiak, altuena Adi (1.457 m) zen, Nafarroan. Gainerakoak gehienak muinak ziren.

Bikote askok hartu zenuten parte? Oso jendetsua izan zen. Izena emateak berehala agortu ziren,

"BAIGORRIKO ASTEBURUAREN OSO BALORAZIO ONA EGIN DUGU; ERREPIKATZEKO MODUKOA"

3 minutu inguruan. Guztira zazi distantzia edo modalitate zuden Baigorri, eta guztira 3.525 korrikalari inguru lehiatu ginen. Gure distantzian 184 bikote sailkatu ginen eta 41ek ez zuten lasterketa bukatu. Gure ibilbidea beste distantzietako ibilbideekin elkartzen zen, eta uneoro korrikalari asko ikusten genituen. Korrikalari euskaldun gehiago espero genituen, horrek pixka bat harritu gintuen.

2x40 Euskal Traila irabazi zenuten. Halakorik espero al zenuten?

Guztia sorpresa izan zen. Lehenengo eguna ongi atera zen (5:23:20), 20 minutu atera genizkien bigarreni, eta bigarren egunean lasaiago ibili ginen (5:45:39). Irabaztea ezustea izan zen, baina ezuste polita.

Atzeko taldeei tarte handia ateraz enieten edo lasterketa borrokatua izan zen?

Antolakuntzak bi egunetako denborak gehitzen ditu eta horrekin sailkapen orokorra egiten da. Gure denbora 11 ordu pasakoa izan zen (11:08:59); bigarreni 53 minutu atera genizkien (12:02:15), eta hirugarreni, ordu eta erdi (12:39:13). Gustura, pozik gaude. **Baigorriko Euskal Traila zer nolako esperientzia izan da, errepikatze modukoa?**

Iparraldeko asteburuaren oso balorazio ona egin dugu. Oso ongi pasatu genuen eta, gainera, aurretik ezagutzen ez genituen toki eta ingurune berriak ezagutu genituen. Hortaz, errepikatze modukoa. Oso ondo.

Nola izaten ari da aurtengo lasterketen denboraldia?

Egia esan, aurten ez dut gauza handirik egin. Joan zen urtean nahiko aspertua amaitu nuen. Proba batzuk errepikatu nituen, eta motibazio falta sumatu nuen. Ez da nahikoa lesiorik ez izatea, irteera puntuan estutzeko gogoz egon behar duzu, eta nik ez nuen gogo edo motibazio hori izan. Horregatik, aurten lasterketarik ez egitea erabaki nuen. Baina, azken momentuan bi lasterketan izena eman dut. Uztailaren hasieran Kataluniako Camins d'Hér (110 km, 6400 m+), eta urrian Huescako Ultra Trail Guara Somontano (82 km, 4700 m+), udan ibiltzen jarraitzeko eta helburu bat izateko.

Pirinioetan dira biak, altueran.

Lasterketa luzeak eta nahiko teknikoak direlako izango da, agian. Disfrutatzea espero dut, horrekin geratuko naiz.



Dantzaleku Sakana Atletismo klubeko juntako kideek, babesleek eta korrikalariak talde argazkia egin zuten.

Dantzaleku Sakana atletismo kluba iraultzarako prest

ATLETISMOA Klubari astindua eman dio junta berriak. Logoa eta ekipazio berria, helduen entrenamendu taldea, atletismo eskolako hobekuntzak, babesle berriak eta Sakanako korrikalari guztiak batzeko egitasmoa bulkatu du Dantzaleku Sakanak

Maidar Betelu Ganboa SAKANA Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak buelta bat eman dio bere jardunari. Junta berria duela zortzi hilabete hasi zen lanean, eta hausnarketa sakona eginda, hainbat behar atzeman eta erabakiak hartu ditu. Hemendik aurrera, klubak, logotipo, ekipazio eta babesle berriak izango ditu, helduen entrenamendu talde berriak, eta, jakina, eskolaren martxa onarekin segitu nahi du. Horretaz gain, Sakanako kirolari guztiak ekainaren 27an Gure Etxean egingo duten bilerara deitu dituzte. "Sare bat sortu nahi dugu, korrikalari, lasterketa antolatzaile eta korrikaren munduan dabilen jende guztiaren artean, Sakanari ikusgarritasuna eman eta elkarri laguntzeko" nabarmendu du Dantzaleku Sakanako presidentek Adrian Claverrek.

Junta berria, aire freskoa Dantzaleku Sakana Atletismo klubaren egitasmoak asteartean aurkeztu zituzten Altsasuko Foruen plazan egindako agerraldian. Junta berria Adrian Claverrek gidatzen du eta berarekin batera Olatz Azazetak, Asier Palaciosok, Ivan Sobredok, Fermin Azkargortak, Albertok eta Ekhi Congilek osatzen dute bilkura. "Gehienak korrikalariak gara, urte asko daramatzagu atletismoan. Oso talde txukuna sortu dugu, ideia berriak sortu dira eta badirudi juntak martxa ona hartu duela".

"BABESLE BERRIEI ESKER DITUGUN EGITASMOAK AURRERA ERAMANGO DITUGU" ADRIAN CLAVER

Klubean belaunaldi berriak sartzeko beharra zegoen. "Aurrekoek egindako lana ezinbestekoa izan da. Iñigo Agirre aurreko presidentearekin oso eskertuta nago, asko irakatsi didalako; gainera, laguntzeko prest daude. Baina berrikuntzak behar ziren eta uste dut aire fresko hori eman diogula taldeari. Jende gaztea sartu da, eta emakume bat, Olatz. Gustatuko litzaiguke junta parekidea izatea, ea emakume gehiago animatzen diren".

Logo eta ekipazio berriak Juntak "ikusten ez den lan asko" egin du. Emaizta astearteko aurkezpenean geratu zen agerian. Batetik, sare sozialei buelta bat eman diote, informazioa eguneratzeko, eta logoa eta ekipazioa berritzeko lanetan aritu dira. "Arropa berria egin nahi genuen, eta konturatu ginen berez Dan-

tzaleku Sakanak ez zuela logotiporik. Letra tipo bereziak erabili izan dira, baina ez zegoen logorik". Maite Mazkiaran altsasuarra diseinatu du logo berria. "Bi proposamen daude, nahieran erabiltzeko. Kamisetan eramango duguna letraz osatuta dago, taldeko D eta S letretan oinarritutako diseinuarekin. Bestalde, logotipo borobil bat diseinatu du Maitek, Beria mendia eta silueteatuta atletismo pista ageri dela. Dantzaleku Sakanaren esentzia biltzen du, mendia eta pista".

Ekipaziorako etxe berberarekin jarraituko dute, Joma. Kolorea mantendu dute, urdina, "jada gure marka delako; Dantzaleku Sakana urdinarekin lotzen da". Txandala mantendu dute, baina kamisetetan modelo berriak sartu dituzte. "Lasterketetarako kamiseta aldatu dugu; kalitate hobea da, ehun aproposagoa. Bestalde, entrenatzeko merkeagoa den bat aukeratu dugu, ez horren kalitate handikoa". Trailerako edo mendi lasterketetarako kamiseta askoz ere teknikoagoaren alde egin dute, Pozik etxekoa. "Asfalto eta pistarako Joma etxea erabiliko dugu, eta trailerako, Pozik". Orain eskariak jasotzen ari dira, arropa eskatzeko.

Babesle berriak

Dantzaleku Sakanak beste nobedade garrantzitsu bat du, babesleak, alegia. Juntako kideak han eta hemen aritu dira euren proiektua azaltzen, eta egindako hamaika bilerek uzta ona eman dute. "Iker Kirolak eta Gautxori Taberna gure bigarren babesleak izango dira. Egitasmoaren berri eman genienetik, baiezkoa eman zuten". Babesle nagusia, aldiz, Electricidad Ramos da. "Oso pozik gaude. Gure mezua jaso zutenean, bilera batera deitu gintuzten eta gure txostena bidali genien. Bileran Dantzaleku Sakanan dugun egitasmoa oso gustukoa dutela esan ziguten: atletismo eskola sustatzeko ekimena, korrikalari sakandarrak batzeko egitasmoa... Gure ideiak euren filosofiarekin bat egiten

KLUBAK SAN SILVESTRE, ONDDO LASTERKETA ETA ALTSASUKO KROSA ANTOLATZEN DITU

dutela azaldu ziguten, eurak ere herriko enpresa bat direla, Sakanan presentzia izan nahi duena. Bi urterako hitzarmena sinatu dugu, guztia ongi badoa, luzatuko dena".

Bazkideak

Izan ere, zehaztutako egitasmoak aurrera eramateko aurrekontua behar da. Dantzaleku Sakanak bazkideak dauzka, baina ez zen nahikoa. "Bazkideek urtero 18 euroko kuota ordaintzen dute, oso merke. Guk hala mantendu nahi dugu, gurea klub herrikoia izaten jarraitzeko; horretarako babesleak lortzea, ez dago besterik". Babesleak lortzea "gakoa" izan da, "ditugun helburuak aurrera eraman ditzakegulako".

Bazkideen kopuruak gora egin du. "Arropa eskatzeko epea zabaldu genuen eta Sare Sozialetan egin genuen difusioa. Hori nolabaiteko booma izan da. Juntan hasi ginenetik 50-60 pertsona inguru egin dira bazkide; egun, 160-170 inguru izango gara".

Eskolaren balorazio ona

Dantzaleku Sakana atletismo eskolaren balorazio ona egin du presidenteak. Fermin Azkargorta, Aitor Mendoza eta Jare Maiza monitoreek trebatutako 80 gaztetxoek emaitza ederrak lortu dituzte kroसान, pistan eta mendi lasterketetan. "Oso pozik gaude lortu dituzten emaitza onengatik baina bereziki eskolaren martxarekin. Juntak, monitoreek, gurasoek, ikasleek... harreman handia izan dugu elkarrekin. Talde guztiek asko disfrutatu dute eta eskolan jarraitu nahi dute eta guretako hori da baloraziorik positiboena". Eskola hobetzea da nahia, eta lasterketak prestatzeari begira, teknifikazio ikastaroa gehituko dute. "Aholkularitzan ordu asko eman ditugu, monitoreen lan baldintzak hobetu nahi ditugunez ekonomikoki ea nola egin dezakegun ikusteko".

Bestalde, helduen entrenamendu taldea sortu zuten martxoan Fermin Azkargorta monitorearekin, datorren denboraldian segida izango duena. "Jendea oso gustura dago kualifikatutako monitore batekin elkarrekin entrenatzen".

Berrikuntzak "oso gogotsu" hartu omen ditu jendeak. "Sarritan esaten digute: hara, bizirik dago Dantzaleku Sakana. Eta bai, bizirik gaude".

"Sakanako korrikalari guztiak batu nahi ditugu"

ADRIAN CLAVER DANTZALEKU SAKANA KLUBEKO PRESIDENTEA
- Ezin da puntu eta bereizik egin erantzunen barruan.

Dantzaleku Sakana klubak ekainaren 27an, 18:00etan Altsasuko Gure Etxean biltzeko deialdia egin die Sakanako korrikalari guztiei. "Sakanari ikusgarritasuna" eman nahi diote.

Zertarako deitu dituzue Sakanako korrikalari guztiak, korrikalariekin eskualdea egiteko?

Bai. Sakanan jende askok egiten du korrika, baina bakoitza bere kabuz aritzen da. Lasterketa batera joaten zara eta beste hogeiki sakandarrekin topo egiten duzu, baina bakoitza bere autoan joan da. Ez dago batasun bat. Badirudi bailaran ez dagoela talderik, baina Dantzaleku Sakana gure izena zerbaitengatik da: gurea ez da Altsasuko talde bat, Sakanako talde bat da, eta argi utzi nahi dugu.

Zein gai landuko dituzue bileran?

Korrikalari guztiak batu nahi ditugu, trailean, pistan eta asfaltoan aritzen direnak, lasterketetara joaten direnak eta besterik gabe entrenatzen dutenak. Guztiak. Hasteko, korrikalariak entzun nahi ditugu. Zer nahi duten, zer botatzen duten faltan, Dantzaleku

Sakanak zer eman ahal dien... guztia aztertu nahi dugu. Korrika egitea ez izatea bakarrik egiten den zerbait. Taldean batzea.

Proposamen asko ditugu. Hasteko, gustatuko litzaiguke hurrengo denboraldian Sakana mailan talde gisa lehiatu ahal izatea bai krosean, trailean, pistan, asfaltoan... azkeneko urteetan ezinezkoa izan dena. Gaur egun Dantzalekun talde gisa lehiatu ahal izateko korrikalari gutxi daude, eta uste dugu Sakanak, bailara gisa, maila duela eta jendea

badagoela modalitate guztietan taldeka korrika egiteko. Bestalde, entrenamendu taldeak sortu eta jendea taldean entrenatzera animatu nahi dugu, edo lasterketetara taldean joatea. Hau da, batasun hori lortu nahi dugu, erakusteko Sakanan badagoela korrika egiteko zaletasuna, jendea egon badagoela eta maila badugula.



"KORRIKALARI BATZUEK DIOTE PLANTEAMENDU SERIO BATEKIN, DANTZALEKU SAKANARA ITZULIKO DIRELA"

Hiru Herrin, Beste Iruñan edo bestelakoetan korrika egiten duten sakandarrak erakarri nahi dituzue?

Bai, gure asmoa da guztiak Dantzaleku Sakanan biltzea. Dagoeneko beste talde batzuetan dauden korrikalari batzuk esan digute planteamendu serio bat ateratzen bada, bueltatzea nahiko luketela, Dantzalekurekin korrika egiteko. Etxeko taldea da eta nahi dute, baina orain arte ez dute ikusi talde sendo bat zegoenik eta horregatik jo zuten kanpora, beharra zutelako. Guk hori bukatzea nahi dugu. Zaila izango da, agian guk momentu honetan ezin dugulako beste talde batzuek dituzten baliabideak eskaini. Baina uste dut talde gehienek kanpoan dutena guk ere badugula.

Batasuna, Sakanako taldeen artean baita ere.

Sakanan lasterketak antolatzen dituzten taldeekin (Zabalarate, Triku Trail...) harremana sustatu nahi dugu, elkarriz laguntzeko. Batasuna lortu nahi dugu Sakanan dauden lasterketa eta korrikalari guztiarekin. Sare bat sortu nahi dugu, korrikalari, antolatzaile, eta korrikaren munduan dabilen jende guztiaren artean, une honetan ez dagoelako.

Hankaz gora jarriko duzue guztia, onerako.

Hala espero dugu. Agian pixka bat anbiziotsu izaten ari gara, baina gogotsu gaude, indarrekin. Orain da momentua, jendeak olatua hartu duelako, arropa berria... Jasotzen ari garen erantzuna ona izaten ari da, eta uste dugu zerbait polita aterako dela hurrengo denboraldirako.

Ehun sakandar inguru ariko dira Triku Trailen

MENDI LASTERKETAK Gaur da Triku Trailen izena emateko azken eguna eta 450 tokiak beteko direla aurreikusten du antolakuntzak. Dagoeneko ehun sakandarrek, tartean 46 etxarriarrek, izena ematea "harro egoteko modukoa" dela uste dute

M.B.G. ETXARRI ARANATZ

Ekainaren 29an jokatu da XI. Triku Trail mendi lasterketa, bi distantziatan: ohiko Triku Traila (21 km, 1.300 m +) eta Triku Trail Motza (10 km, 524 m +). Gaur bukatzen da izena emateko eguna, eta "oso pozik" daude antolatzaileak, "dortsalak agortzeaz daudelako". Guztira 450 korrikalariendako muga du antolakuntzak, eta momentuz gehienek Triku Trail Motzaren alde egin dutela azaldu du Igor Artiedak. "Iaz antolatu genuen lehenengoz ibilbide motza, eta sekulako harrera izan du. Aurtentzen %55 inguruk hautatu dute. Gehienak gazteak dira, asko iraunkorki korrika egiten ez dutenak, baina Triku Trail Motza egitea erronka gisa hartzen dutenak. Pozik gaude, trebatzeko bada ere Triku Trail erreferente bat delako".

Etxarri Aranazko kanpina irteera eta helmuga izanda, inguruko parajeetan Triku Trailek



Korrikalariak, iazko edizioan. FESTAK.COM

ibilbide zoragarria du. "Motzak Luzearen lehen 4,5 km-ak eta azken 4,5 km-ak hartzen ditu". Lasterketak Nafarroako Mendi Federazioko lasterketen Rankingerrako puntuatuko du. Etxarri Aranazko kanpinean aste-

buru polita izaten da, korrikalari askok asteburuko egonaldia egiten dutelako bertan. "Guk ez dugu Ezkaurre, Orhi edo Beriain bat lasterketako ikur bezala, horregatik beste elementu batzuk saltzen ditugu. Basoan eta eremu ia gehiena itzalpean duen lasterketa eskaintzen dugu, ibilbide gorabeheratsua duena, eta korrika egiteko oso aproposa dena, ez baita teknikoa. Hiru igoera potente ditu, paraje oso ederrean. Triku Trail familia giroan egiteko aproposa da, asteburu pasa etortzeko primerakoa". Proba ikusteko, "Lizarrusti, Haritzen ibilbidea, kanpina... toki asko daude".

Momentuz ehun sakandar inguruk eman dute izena, tartean 46 etxarriarrek. "Hori guretako oso datu polita da, harro egoteko modukoa, lasterketa errotuta dagoela erakusten duelako eta gazteek erronka bezala dutelako". Lan handiko egunak dira, "gustura egiten ditugunak".

Azkargortaren bigarren Camille

MENDI LASTERKETAK Irati Azkargota Galarza iturmendiarrak bere bigarren Camille Extreme (32 km, 2.044 m+) irabazi du jarraian (3:48:06). Andorran bizi den fisioak goitik behera kontrolatu zuen proba; 2.047 m dituen Ezkaurre igotzen lehena izan zen (42:41), eta 2 minutu pasa atera zizkion Ainara Alcuazi (3:50:45). Aritz Munarriz 18. sailkatu zen (3:33:34).



ESKELA



Zoily Portillo Zaldibar



Oso gogorrak izan dira guretzat azken egun hauek, osaba Lorentxok deitu zuenetik berriak emateko, telefonoa gainetik kendu ezinda egon gara, distantziagatik ezin izan dugu agurrik esan nahiko genuen modura, baina zure bihotzeko sugarra ez da sekula itzaliko guretzat.

Zure senarra Lorentxo, semeak Cristian eta Xabi, ezkon arreba-anaia Kontxi eta Joxean, ilobak Naroa eta Jexux, Goiuria eta Pablo, Ekhi, Mattin, Jare, Jurgen eta Uxuri.

San Francisco - Etxarri Aranatz

ESKELA




Elisabeth Urkia Arretxe

Ixil-ixilik fan za, ne biyotzeko laune beti goguen izanen zeittugu, ELI.

Eskerrik asko elkarrekin yoteko aukera ematietis.

Abelina eta familiye



ESKELA



Elisabeth Urkia Arretxe

Gaua ilundu da izar bat
Itzali berri delako
Zerua goibel ta triste
Ekaitz ta eurizko malko
Eskertzeko asko dugu
Beraz eskertu beharko
barren barrenetik Eli

Puntu hauek zuretzako
Gero arte esan gabe
Alde egin duzulako
Azken muxu hau har zazu
Eta Gorde Betirako
Etxarritikan Zerura
Agur ta eskerrik asko

Zure Etxarriko kuadrile

ESKELA



Elisabeth Urkia Arretxe

Bizia kontrolatu nahian,
Bizitzak kontrolatu gaitu...

Agur agur begi iluna
Agur agur betirako
Agur bai baina ez, ez zaitugu
ahaztuko.

Urkia - Ijorra familia

ESKELA



Elisabeth Urkia Arretxe

Gure ondotik joan zara baina beti
egongo zara gure bihotzetan

Zui launek

ESKELA



Ramon Barea Piñeiro

(Preso oiha)

Urrun egon arren
beti elkarrekin

Olaztiko familia



Er^viti aluminio
PVC

Akaborro industrialdea 13 Irurtzun | 948 500 813 | info@aluminioserviti.es

LEIHOAK, ATEAK, BALKOI ETA TERRAZEN ITXITURAK

Erakusketa Irurtzunen

Etxe zaharren
berriztatze eta birgaitzea

ESKELA



Angel Senar Senar

Mundua ez da beti jai, inoiz tristea ere bai,
baina badira mila motibo, kantatzeko alai.
Bestela datozen penai, ez diet surik bota nahi,
ni hiltzen naizen gauean behintzat, eizue lo lasai

Etxekuek

ESKELA



Angel Senar Senar

*Betirako gure bihotzetan.***Etxarriko zure kintoak**

ESKELA

Senar

Hil arte bizi,
bidean izandako
bizitzeko grina,
guretzat eredu.

Lurrak goxo har zaitzala,
gure artean betiko bizirik.

Bakaikuko lagunak

ESKELA



Jose Miguel Maiza Panizo

Ta Kantauritik harago zerbait balego
besarkatuko gara berriro.
Besarkada bat familiarendako.

Xegunen launek

OROIGARRIA



Aitzarte Barandiaran Garcia

V. urteurrena

Gure zati bat eraman zenuen eta
gure bihotzetan zaude betiko.
Ez zaitugu ahazten.
Maite zaitugu.

Leire eta zure seme Oihan

IRAGARKI SAILKATUAK

Ekainaren 27tik 29ra Unanuko festetan taberna kudeatzeko interesa duenak
unenukonzejuja@gmail.com e-postara mezua bidal dezala. Baldintzak onak dira.

GALDUTAKOAK

Pitti katua galdu da Etxarri Aranatzan: Burreina kalean bizi da eta etxetik maiatzaren 27tik falta da, gris kolorekoa, oinak txuriak, txipa darara lepoan eta esterilizatua dago. Katuaren argazkia www.guaixe.eus/iragarkiak/ loturan. Ikusi baduzue, mesedez, 627 139 661 telefonora deitzea eskertuko genizueke.

SALGAI

Baserriko teila zaharrak salgai: Egoera eta prezio onean. Interesa baduzu, deitu 606 299 457.

IKASTAROA

Ergoienako Udalak datorren ikasturterako ikastaroetan izen ematea zabaldu du: Yoga, hipopresiboak eta eskulan tailerra ikastaroak antolatu ditu. Orduetegiak, baldintzak eta izena emateko udalarekin harremanetan jarri.

OHARRAK

Olaztiko Udalak zezensuzkoa eramateko izen emate deialdia zabaldu du: Baldintzak eta izen emateko Olaztiko udalarekin.

Arakilgo Udalak haur eta nerabeendako udako eskaintza izena emateko epea zabaldu

du: Orduetegiak eta informazio osagarria www.arakil.eus web orrian edo udaletxean.

Olaztiko Santa Ana festetako zapia: joan den urtean jaiotako haurrek zapia jaso ahal izateko, izena eman behar dute udaletxean.

Etxarri Aranazko Udak Musika Eskolak matrikulazio epea zabaldu du: Informazio gehiago udaletxean edo www.etxarriaranatz.eus web orrian.

Etxarri Aranazko abesbatza txikian izena emateko epea zabaldu du: 6-15 urte bitarteko haur eta gazteentzat.

Udan ere Mintzakide: Udan ere mintzataldeak osatuko ditu AEK-k, dohainik dira, animatu!!

AEK-k euskaldun bat behar du Sakanan udan beste euskaldun ba-

tzuekin euskaraz ari-tzeko, deitu 600 482 024 telefonora.

Lakuntzako igerilekuak ekainaren 20ean zabalduko dituzte: Bonoak Udaletxean salgai daude iada.

Arbizuko Udalak udako tailerretan izena emateko epea zabaldu du:

Informazio gehiago Udaletxean edo www.arbizu.eus web orrian.

Uharteko Arakilgo Udak herriko kultura, kirol eta gizarte entitateei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du: Deialdiaren oinarriak www.uhartearakil.eus web orrian.

Uharteko Arakilen haurrendako udako aisialdi programan izena emateko epea zabaldu du: Udan Euskaraz oporretako euskararen arnagunea eskaintza prestatu du. Informazioa udaletxean.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUS

WWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Astearteko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.

- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko astearteko 13:00ra arte.

ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75
edo eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 55,90 €/106,5 €/143,70€ prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek %10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Asteazkena goizetako 12:00ak baino lehen.

IRACHE

tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

"Betidanik"

- ☎ 948 19 70 70
- ✉ @Grupolrache
- f Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Ordezkarari politikoak, tartean Eneka Maiz eta Unai Uhalde, musikariek, tartean Igor Ijurra, Urmugako aurkezpenean. URMUGA

Mendia eta kultura elkartzaren direnean

Uztailaren 11tik 31ra eta 19tik 29ra izanen dira Urmugako mendi martxa eta kultur ekitaldiak. Nafarroako Erresuma zeharkatuko du ekimenak. Uztailaren 19ko Aizpearroko ekitaldia Lakuntzako Udalak eta Aralarko Mankomunitateak antolatu dute

SAKANA

Uztailaren 11tik 31ra ospatuko da 2025eko Urmuga, Euskal Herriko mendi, haran eta herriak zeharkatzen duen ekimen artistiko eta herrikoa. Aurtengo protagonista Nafarroa izanen da, eta etapa eta kontzertu gehienak herrialdean izanen dira. Berrikuntza nagusia 1000 urteko Iruñeko Erresumako geografia-

ren zati bat zeharkatuko duela izanen da: gazteluak, ermitak, baserriak eta monastegiak, "lurraldea josiz, musika, natura, euskara, kultura eta historia biziz", antolakuntzatik esan dutenez.

Uztailaren 11an abiatuko da mendi martxa, eta 19tik 29ra bitartean "mendiko beste hainbeste ibilbideez eta era askota-

riko hamaika musika emanaldiez gozatu ahal izango dugu, hamaika egunetan zehar". Besteak beste, Aralarko Aipearron, Aresoko Irumugarrietan, Uxue, Rocaforteko gazteluan, Lireko monastegian, Baigorriko Etxauzia gazteluan, Peñako San Joan monastegian, Iratiko Salvatore ermitan edo Orbaitzetan. Aizpearroko emanaldia, hain zuzen,

Urmuga Nafarroako mugara helduko da, uztailaren 19an, larunbata, 18:00etan, eta Larraungo eta Lakuntzako Udalek eta Aralar Mankomunitateak elkarlanean antolatu dute; Mirari taldea, Fede Dios, Janus Lester, Olaia Inziarte, Lorea Zulaika, Xak Taldea eta Et Incarnatus Orkestra ariko dira. Sarrerak 20 eurotan eros daitezke.

Hurrengo egunean, uztailaren 20an, edizio honetako "ekitaldi garrantzitsuenetako bat" izango da: Uli ondoko Irumugarrietan, Areso eta Berastegi herrien artean, Ipuskua 1000 urte ikuskizuna izango da, eta bertan Iruñeko eta Donostiako orfeoiek, Leitzako Abesbatzak, Baigorri eta Iruñeko gaiteroek eta Tolosa, Iruñea eta Aragoiko dantzari eta musikariek parte hartuko dute, besteak beste, Et Incarnatus Orkestrarekin batera.

Aralar

Ekitaldi "handi" honetan, besteak beste, ordezkarisakandarra izanen da, Iruñeko Orfeoiko zuzendaria den Igor Ijurra etxarriarra. Harekin batera, Vinaixa Gartzia Leitzako Jeiki zuzendariak, Juan Mari Iparagirre Amasa Villabonako Eresargiko zuzendariak eta Jose Antonio Sainz Alfaro Donostiako orfeoiko zuzendariak parte hartuko dute. Bestetik, Tolosako Bordondatzariak, Iruñeko Duguna dantza taldea eta Villabonako Oinkari, Leitzako Aurrera eta Bedaioko dantzariak ariko dira ere. Itziar eta Garikoitz Otamendi izango dira koreografoak, eta Hueskatik Benasqueko Dantzateak, Ansoko dantza taldea eta Ainsako Viello Sobrarbe dantza taldea helduko dira. Haiekin batera ere Alaitz Artola abeslariak, Amaia Elizaran dantzariak, Luis Saleasa eta Alvaro de la Torre mu-

sikariek eta Jaione Olazabal eta familiak parte hartuko dute.

Hurrengo egunetan Nafarroa zehar zeharkaldia egingo du jaialdia, "Iruñeko Erresumaren arrastoari jarraituz", eta Uxuetik Aragoi dagoen San Juan de la Peña monastegiraino joanen da; uztailaren 21ean, Uxuen, 19:30ean, Et Incarnatus boskoteak Bailando, de las montañas al mar ikuskizuna emenan du.

Hurrengo egunean, uztailaren 22an, 12.00etatik aurrera, Rocaforteko gazteluan, Baskunsa, la cuna de un pueblo ekimenaren barruan, besteak beste, txalapartekin harrera egingo dute eta Galo Santamaria ariko da; Josu Barragan arkeologoak orain arte egindako lanaren emaitza azalduko du, eta Rocamor Dantza Taldeak Zangotzako Zortzi-koa egingo dute, ongiatorri ofiziala egingo du Maria Eugenia Perez Rocaforteko alkateak, Aitor Fernandezek elizara eta bere margolenetara bisita gidatua egingo du. Bestetik, Aranzadiko Juantxo Agirre Mauleonek bertan egin duten lanaren ildoak azalduko ditu. Bazkarirako erromeria egingo dute, eta ondoren Aralar Quartet taldearen emanaldia izango da. Rocaforte aukeratu dute bertan Antso Garces jaio zelako 925ean, duela mila eta ehun urte, hil zen Iruñeko erregea. Uztailaren 29ra arte izango dira ekimenak. *Urmuga.eus* webgunean ikus daitezke egitarauak.

NAFARROAKO ERRESUMA IZANGO DA URMUGA EKIMENAREN PROTAGONISTA

Abesbatza Txikia ikasturte berrirako prestatzen

Ekainaren 22an, igandea, 'Jostailugilea' ipuin musikatua eta kontzertua emanen dute, Etxarrin

ETXARRI ARANATZ

Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiak Jostailugilea ipuin musikatua eta kontzertua emanen du ekainaren 22an, igandea, 18:30ean, Andra Mari baseliza-ko zelaian. "Aldatzeagatik"

aurten zerbait berezia prestatzen zuten, eta Josu Elberdinen ipuin musikatua egin zuten lehendabiziko aldiz. Lakuntzako kultur etxean musto ondoren, herrian egingen dute ikasturtea bukatzeko.

Bestetik, Abesbatza Txikia datorren ikasturtean izen emateko epea zabalik dago, eta horretarako abesbatzak sareetan jarri duen helbidean dagoen galdetegia bete behar da. Abesbatza Txikia 6 eta 15 urte bitarteko haur eta gazteendako da. Entseguak astean behin izaten dira, ostiraletan, eta ordu bateko iraupena izatne dute. corotxikis@gmail.com helbidera informazio gehiago eska daiteke. Gaur egun hamasei gaztetxok parte hartzen dute.



Etxarri Aranazko Abesbatza Txikiaren kideak. UTZITAKOIA



Askazi taldeko kideak. UTZITAKOA

Musika proiektu berria Arbizun

Bost musikaririk osatzen dute Askazi. Talde "ez ohikoa" dela esan dute taldekideek, izan ere, hiru edo lau abesti sortzen hasi dira, eta ondoren hasiko dira kontzertuetarako prestatzen. Helburua "ongi pasatzea" da

Erkuden Ruiz Barroso ARBIZU

"Egia esan, esperientzia duen taldea gara. Denok eduki dugu beste talderen bat aurretik, eta gehienok jarraitzen dugu beste talde batean gaur egun ere". Bost kidez osatutako talde berria sortu dute Arbizun: Askazi. Ulon ahotsak, Iñaki gitarra joleak, Erik gitarra joleak, Alain bateria joleak eta Iban baxu joleak osatzen dute, eta aitortu dutenez proiektua osatzea ez da erraza izan. Esaterako, talde gehiagotan egoteak entseatzeko garaian ez duela laguntzen esan du Ulonek. "Esan daiteke behartu gabekoa izan dela sorrera, orain dela urte batzuk Erikek melodia pare batzuk erakutsi zizkidan, eta lokalean itxura pixka bat hartu zuten".

Lehenengo melodia horietatik sortu zen taldearen ideia nagusia. "Hortik aurrera, pixka bat

serioago jarri ginen eta ea talde bat sortuko genuen galdetu genion elkarri". Hortaz, ideia horrekin aurrera egin zuten, "nahiz eta hasiera batean beste formazio batekin hasi ginen lehenengo entseguak egiten". Ulonek, esaterako, taldeko bateria jolea zela esan du. Gauzak aurrera egin ahala, konpromezu gehiago hartzeari eta eskatzeari ekin zioten, eta proiektuan hasi zuten batzuk ez jarraitzea erabaki zuten, "beste talde batzuekin topera baitzeuden". Hortaz, "beste lagun batzuekin" harremanetan jarri ziren, eta joan zen urteko urrian gaur egungo taldea sortu zen: "Iñaki, Iban eta Alain sartu ziren, taldeari txispak ikaragarria emanaz".

Helburu nagusia "ongi pasatzea" dela esan du Ulonek. "Musika gustatzen zaigunoi beti gustatzen zaigu saltsan ibili, eta nola ez,

gauza berriak probatu". Musika adierazteko modu bat da haiendako: "Gure bizimodua, gure lurrak, gure historia eta, nola ez, kaleko injustizia guztiak adierazteko tresna bezala sentitzen dugu". Jendeari inguruan daukana "ahaztu" egiten zaiola esan du, baina gehiago baloratu dezan saiatuko dira: "Honen lekuko gure lehenengo abestia den SAKANAREN bideoklipa da". Dagoeneko ikusgai dago.

Kaleko musika

"Txikitatik" entzun duten kaleko musika jotzen du Askazi

"GURE BIZIMODUA, LURRAK, HISTORIA ETA INJUSTIZIAK ADIERAZTEKO TRESNA DA"

taldeak, "beraz, barnetik ateratzen zaiguna kaleko musika da". Estilo horren barruak, zerbait "melodikoagoa" egiten dutela azaldu du Ulonek, "garrantzia handia ematen diogu letren metrika eta fonetikari". Helburua abestiak jendeari "erraz" sartzea da, "lortuko dugun ez dakigu", esan du abeslariak barrezka.

Erikek proposatutako melodia batekin hasten dira abestiak sortzen. "Hortik melodia hori pixka bat landu eta eskatzen diguna sartzen joaten gara". Bitartean tematika bat zehazten dute abestiaren "iluntasunaren" arabera eta gutxinaka estruktura bat jorrotzen dute; "bukatzeko, estruktura musikala eta melodiak argi ditugunean, amaierako letra sartzen dugu". Letrak egiten "oso ibiliak" ez direla esan du Ulonek, eta horregatik "gure kamarada den Estaneri -Nafarroa 1512 taldeko baxu joleari-laguntza eskatu ohi diogu". Haiendako erreferente bat dela esan du.

Proiektua modu "ez ohiko" batean hasi dute: "Normalean edo ohikoena talde hasiberrietan izaten da lehenengo abesti batzuk edo bertsioak jotzea eta entseatzeko, baina gure kasuan, nik uste arrazoi nagusia denbora falta dela, erabaki genuen geneuzkan hiru edo lau abestiak grabatzeari eskaintzea eta taldea sareetan aurkeztea". Hirugarren abestia "sarri" aterako dute, eta laugarren abestia bukatutakoan

lehenengo abestiak kaleratzeko fasea amaituko dute. "Hortik aurrera entseatzeari eskainiko diogu denbora". Asmoa diskoa kaleratzea da, baina lehenengo lau kantak aterako dituzte, kontzertua ematea aurreikusten dute, eta ondoren diskoa prestatuko dute. "Hori da ikusten dugun proiektuaren hasiera. Ea zer moduz doan". Taldean hartutako erabakia izan da. "Gauzak behartu gabe egin nahi ditugu. Momentuz, behintzat, abesti horiek kaleratu eta entseatzeko hasiko gara. Denbora gutxi dugunez, ez dugu data zehatz bat jarriko zuzeneko bat egiteko; baina entseatzeko hasi eta ikusten dugunean dena ongi ateratzen dela, kontzertuekin hasiko gara".

Bihotza

Taldekiendako musika "bihotza betetzeko" modu bat dela esan du abeslariak. "Oso erlatiboa izan daitekeen tresna. Bizi hau, gora behere eta etapaz beteta dago, batzuk onak eta beste batzuk ez hain onak, eta momentu horiei aurre egiteko tresna ezin hobea dela iruditzen zaigu". Musika egiten, modu batean momentu horie-

"MUSIKA BIHOTZA BETETZEKO MODU BAT DA; ZENBAIT MOMENTURI AURRE EGITEKO TRESNA"



Espaciobiker Custom Club Navarra taldeko Adrian Cuevas, Iker Vazquez, Jesus Alonso eta Iñaki Urzaiz.

"Custom motorrak gustuko ditugun kuadrilla gara"

Espaciobiker Custom Club Navarrak 16. Urteurrenoko Festa antolatu du larunbatean Irurtzunen. Adrian Cuevas eta Jesus Alonso irurtzundarrek eta Iñaki Urzaiz eta Iker Vazquez iruindarrek euren motor klub munduan murgildu gaituzte

Maidet Betelu Ganboa IRURTZUN

1 Motor gidariak, aspalditik?

Adrian izan ezik, bera oraindik aprendiza baita, Espaciobiker Custom Club Navarra klubera egokitzen ari da. Gure kluba Nafarroan eta Gipuzkoan sortu zen, eta ondotik delegazioak edo "kapitulua" sortu ziren beste zenbait probintziatan.

2 Nafarroan motor klub asko daude?

Gu Nafarroako Kluben Anaitasunean sartuta gaude. Hamalau klub gara guztira. Guztion artean irteeren, kontzentrazioen eta urteurren festen egutegia adositu eta argitaratzen dugu urtero.

3 Espaciobiker Custom Club Navarraren egoitza non dago?

Udabeko bentetan, bertako nagusi Juan Jose 'Khakun' gure presidentea delako. Bertan egiten ditugu asanbladak. Klubetan hierarkia dago. Iñaki Urzaiz presidenteordea da, Iker Vazquez arma sarjentua, ordena mantentzen duena, Jesus Alonso kidea eta ni, Adrian, aprendiza naiz, berria, klubaren nondik norakoak ikasten ari naizena.

4 Txalekoan, klubeko partxeak.

Klubaren izena (ESKB C.C.), azpian gure goitizena, kargua, eta gorago klubaren logoa duen partxea daramagu. Bizkarrean partxe bera, baina tamaina handian. Adrianek, aprendiza denez, oraindik ez du partxerik.

5 Custom motor klub bateko kide izatea zer da zuendako?

Custom motorrak gustuko ditugu, zaletasun bera dugun kuadrilla gara. Irteerak egiten ditugu, eta ongi pasatzen dugu. Bizitzeko modu bat da, eta guztia dago lotuta, filosofia berean: motorrak, kluba, estetika, kolore beltza, txalekoak, rock and rolla... Gainera, mundu honetan lagun handiak egiten dira, eta toki asko ezagutzen.

6 Zuen motorrak chopperrak dira, customak.

Bai. Abiadurazko motorrean ia etzanda zoaz, deseroso; abiadura eta adrenalina kontua da. Guri, aldiz, bidaiatzeko disfrutatzea gustatzen zaigu. Gure motorrak handiak dira, pisuak, eserita eroso bidaiatzeko, banaka edo binaka. Paisiaz gozatu, norberaren pentsamenduak ordenean jarri, airea sentitu... beste historia bat da, beste sentsazio bat. Astebururo irteera bat egiten saiatzen gara.

7 Larunbatean Espaciobiker Custom Club Navarrakoek 16. Urteurrenoko festa antolatu duzue Irurtzunen. Egun berezia izango da.

Jakina. Goizeko 9:00etan eskolako patioan bilduko gara guztia muntatzeko eta izena ematea zabaltzeko. 80 motor gidari inguru bilduko gara. 10:30ean irteera egingo dugu. Latasatik

Arostegira joan eta Izarpe kanpian gosaldia ondoren Ultzama eta Basaburuatik pasako gara, gure egoitza, Udabeko bentatik, Lekunberritik Iribasera joko dugu eta Madotz eta Zuarrarratetik Irurtzunera helduko gara. Matxainen bazkaldu, eta 18:00etan Sakanako Harri Jasotzaileen erakustaldia, jokoak, zozketak eta beste izango ditugu. DJ festarekin bukatuko da eguna.

8 Nongo jendea etortzen da?

Hemengoak, baina baita ere Bartzelonatik, Valladolidetik, Frantziatik eta Ibizatik etorri izan zaizkigu motorzaleak.

9 Motor klubetan erreleborik badago? Belaunaldi berririk?

Motorrarekiko zaletasuna ez da besterik gabe sortzen. Txikitatik dator, triziklotik, bizikletetatik hasita... motorra erosteko desioan geunden. Egun, ez dira horrenbeste motor ikusten, eta erreleboarena zaila dago.

10 Custom munduan Harley Davidsonak goren dira?

Guk ez dugu Harley-rik, gureak Yamahak eta BMW-ak dira. Norberaren gustuaren arabera da, baina Harleyak mitikoak dira, legenda hutsa. Ongi zaindutako motorrak bizitzeko gurtia iraun dezake, eta guk oso ongi zaintzen ditugu gureak.

11 Urrutien egin dituzuen irteerak zeintzuk dira?

Portugalgo Faroko kontzentrazioa, Jaen... Baina nahiago dugu eguneko irteerak egitea, ingurune pribilegiatua dugulako. Iñaki Norvegiako Nord Kappen egon zen. Noizbait 66. Ibilbidea egin beharko dugu (kar-kar).

BAZKIDETU

Izan giltzarri!

Hilabetean euro baten truke
Urteko bazkidetza 60€



Izena

Abizenak

NA/IFZ

Helbidea

Herria

Telefono zenbakia

Emaila

Bankuko kontu korrante zenbakia:

ES _____



948 564 275
618 882 675
admin@guaixe.eus
www.guaixe.eus